



LITERATUR LEHIAKETA 2015

ORIO

ESKOLAUMEEN

LITERATUR LEHIAKETA 2015

ORIO



Azala: Beñat Uranga
Legezko gordailua: SS 477/88
Inprimaketa: Bizker grafikak (Lasarte-Oria)

AURKIBIDEA

<i>Hitzaurrea. Elisabeth Huegun</i>	5
<i>Natura. Nagore Igartua</i>	7
<i>Eguzki amandrea. Aitana Manterola</i>	7
<i>Iturri magikoa. Karla Aramendi</i>	9
<i>Karlos eta mundu osoko abenturak. Iker Sarasua</i>	11
<i>Nire bihotza. Rahgad Mautouk</i>	15
<i>Hiru txerritxoak. Paula Eizagirre</i>	17
<i>Hiru amonak eta loreak. Ines Duran</i>	19
<i>Arrastaka ibili nahi ez zuen sugea. Irati Elozegi</i>	21
<i>Nire bizitza nirea da. Candy Ostolaza</i>	23
<i>Patxi bidaiaria. Iker Pielago</i>	25
<i>Zenbat... Jugatz Aduriz</i>	27
<i>Liburutegia. Naroa Larreta</i>	29
<i>Albeoloak greban. Sara Mujika</i>	31
<i>Catherine. Naroa Larreta</i>	35
<i>Nire umetxo polita. Dania Alguacil</i>	39
<i>Gure ama lurra. Joxe Mari Unanue</i>	41
<i>Luisa eta bere sekretua. Andrea Agudo</i>	43
<i>Lagun berri bat ikastolan. Laida Urbitarte</i>	47
<i>Maite ditut. Eider Peiro</i>	51
<i>Amets galdua. Eider Urain</i>	53
<i>Bakarrik inoiz ez. Oihana Olasagasti</i>	53
<i>Arraunlari baten bizitza. Ramunas Almanaitis</i>	61
<i>Lege hausteen aurka. Borja Esnal</i>	65
<i>Beldurra. Igor Romero</i>	67
<i>Ezinezko amodioa. Irene Anzorregi</i>	67
<i>Ikusmen oneko aitona itsua. Olatz Genova</i>	71
<i>Beldurrez bizi. Alazne Arriola</i>	75
<i>Ezkutaleku iluna. Naroa Miralles</i>	79

Hitzaurrea

Sei urte nituela, udako gau izartsu horietako bat zela ondo gogoratzen dut, amak opari bat ekarri zidan. Ordura arte jasotako opari guztiak opari-paperean bilduta jaso nituela esango nuke, eta ez nuen ulertu oparia berez, biluzik, ematearen arrazoia. Opari-paperak azken uneraino tentsioa mantentzen laguntzen du, ezinegon guztia batera pilatu eta, halako batean, segundo bakar baten bueltan, papera kentzearekin bat, urduritasun hori sorpresa (edo desilusio) bihurtuz. Laster ulertu nuen liburuek ez dutela opari-paperik behar, orain artean azaldutako prozesu hori guztia beren baitan daramatela. Opari hura liburu bat zen, ur tanta baten abenturak kontatzen zituen.

Liburuetan emozioak oparitzen dizkiguna ez da opari-paperaren bestaldean zer dagoen deskubritzea, orri horietan idatzitako abenturak eta sentipenak bizitzea baizik. Kanpoan euria ari duelako etxean zaudenean, zaldi bihurtu eta mendian saltoka zabiltzala sentitzea.

Gerora, 8 edo 9 urte nituela, prozesu horri buelta eman niezaiokeela konturatu nintzen, neroni izan nintekeela emozio eta sentipen horien sortzailea, paper zuriaren aurrean jarri eta Indiara bidaiatzea erabaki zezakeena. Horrelaxe hasi zen idazteko dudak zaletasuna, eta hainbat urte beranduago, irakurtzearen plazera deskubritzea bezain atsegina izan dela esan dezaket.

Askotan, nik idatzitako testuen irakurle bakarra ere ni neroni izaten naiz, eta nik idatziak izan arren, kontziente ez naizen gauzak irakurtzera iritsi naiz. Hainbat unetan orri zuria lagun baten parekoa izaten da, behar duzun hori aholkua ez eta entzutea besterik ez denean bereziki. Idazteak ere balio du norbere burua ezagutu eta laguntzeko.

Idaztearen esperientzia norberak bizi beharrekoa da, klasean idazten den eratik oso bestelakoa baita norberaren imajinazioak sortzen duena.

Lehiaketa hau bezalako ekimenek sortzaile izatera garamatzate, bestela idaztera eseriko ez liratekeen haurrak irudimena lantzerantz bultzatuz. Pertsona bakoitzak bere erara deskubritzen du idazteko zaletasunik baduen edo ez, eta horretarako tresna egokia da literatur lehiaketa. Zaletasun hori jada badutenentzat gaitasuna eta egindako ahalegina neurtzeko ere balio du. Ez dut esan nahi saririk ez jasotzeak gaitasun eza adierazten duenik, inondik inora. Saria jasotakoak baino askoz ere gehiago izan dira saririk gabekoak niretzat, baina horrek ez dit atzera eginarazi. Azken finean idaztearen esperientziak norberarentzat duela eraginik handiena iruditzen zait, eta sariren bat jasotzeko aukerak motibazio puntu bat gehitzen diola.

Beraz, idazten duzuenok horretan jarraitzera animatzen zaituztet, eta oraindik idatz dezakezuela ez dakizuenok horretan hastera, abantailarik handiena zuentzat zeuontzat izango baita!

Elisabeth Huegun

Natura

Bizitzeko behar nauzue.
Zuhaitzak batzuetan gorri eta hori.
Loreak, berriz, zuri eta gorri.
Itsasoa urdin
dagoenean garbi.
Izarrak zeruan diz-diz,
gauean ematen digute argi.
Unibertsoa ilun eta handi...
Zein leku ederrean bizi naiz ni!

Nagore Igartua

Eguzki amandrea

Zein izar ederra zaren!
ze izar argia zaren!
Beti beroa emateko prest.
Zia, zia, zia! Eguzki bizia!
Zu bai alaia, zu bai ederra,
Eguzki amandrea!
Hodei artean zabilta jolasean,
hodei artean zabilta dantzan,
zu bai xarmanta!
Bero, bero, bero!
Eguzkia dugu egunero!

Aitana Manterola



Imanol Elorza

Iturri magikoa

Bazen behin etxe batean, Sofia izena zuen neskato bat. Lili bere txakurra zen. Arratsaldero mendira joaten ziren jolastera.

Arratsalde batean, atera zirenean, Lili txori baten atzetik joan zen zaunka. Sofiak ezin zuen txakurraren atzetik jarraitu eta geratu egin zen, zeharo nekatuta. Lili bueltan etorri zenean, Sofiak eskuan zeukan merienda lapurtu zion. Gosez zegoenez, amonaren etxera joatea pentsatu zuen. Han ez zuen inor aurkitu eta Lilirekin jolasten jarraitu zuen. Biak egarriz zeuden eta Lilik iturri bat ikusi zuen bidean. Ura edatera joan ziren biak. Sofia ura edaten ari zela, Lili zaunka hasi zen. Sofiak ez zuen ulertzen zergatik eta ez zion kasurik egin.

Etxera iristerakoan amak galdetu zion:

—Zer egin duzu? Nola duzu ilea?

Sofia, harrituta, ispilura joan zen begiratzera, eta han, bere ilea arrosa zela ikusi zuen.

Ez zekien nola gertatu zen hori; baina, gustukoa zuenez, ez zitzaion ezer inporta eta horrela utzi zuen.

Beste egun batean, berriro Lilirekin paseatzera joan zenean, iturritik pasa eta ura edan zuen berriz. Lili berriro zaunka hasi zen, eta etxean gauza bera gertatu zitzaion amarekin. Oraingo honetan ilea marroia zuen.

Amarekin hitz egiten, iturriak zerikusirik bazeukala iruditu zitzaion, eta biak elkarrekin joan ziren hara.

Iturrian froga batzuk egin zituzten eta konturatu ziren Sofiak bakarrik zeukala ilea aldatzeko ahalmena.


Iturri magiko hartan hartutako ura erabiliz, Sofiak edozeinen ilea nahi zuen kolorez tinda zezakeen.

Ahalmen hori aprobetxatuz, iturria zegoen lekuan denda bat ireki zuen, ILE KOLORETSUA izenekoa, eta jende asko joaten zen ilearen kolorea aldatzera.

Oso famatua egin zen eta munduko bazter guztietatik etortzen ziren beregana.

Hala bazan eta ez bazan, sar dadila iturri magikoan eta atera dadila Orioko plazan.

Karla Aramendi



Eider Polo

Karlos eta mundu osoko abenturak

Orain dela mila urte, baso batean mutil bat bizi zen. Baso hori beste mundu baten barruan zegoen. Mutilak Karlos izena zuen.

Goiz batean, basotik zebilela, kobazulo bat ikusi zuen Karlosek. Kobazulora sartu zen, ausardiaz, zer topatuko zuen jakin gabe.

Kobazuloa pasabide bat bezalakoa zen. Bukaeran jauregi zoragarri bat zegoen. Urrezko jauregi bat! Poliki-poliki jauregira gerturatzea pentsatu zuen. Baina, bidean aurrera zihoala, urrezko suge bat agertu zitzaion, erasotzeko asmoz. Karlos mutil bizkorra zenez, sugea kolpatu zuen eta erasotik onik ateratzea lortu zuen. Horrela, aurrera jarraitu zuen.

Aurrean herrixka bat ikusi zuen. Herrira joan zen ea norbait ikusten zuen. Lehenik, kaira gerturatzea pentsatu zuen; baina espero ez zuen zerbait gertatu zitzaion. Kaian itsasontzi pirata bat zegoen. Piratek, Karlos ikusi zutenean, preso hartu zuten. Piratek beren kapitainarengana eramane zuten Karlos. Kapitainak Jak izena zuen.

Handik bi egunetara, piraten itsasontzia itsasoratu zen Karlos berekin zihoalarik. Itsasontzi pirata uharte baterantz zihoan. Baina, bide erdian, uretako dinosauro bat azaldu zen. Bere isats luzearekin itsasontzia kolpatu eta erditik hautsi zuen. Itsasontzia hondoratu egin zen. Ezbehar hartatik Karlos, Jak kapitaina eta beste hiru pirata baizik ez ziren salbatu.

Enbor batzuei helduta, uharte batera iristea lortu zuten.

Uhartean oihan eder bat zegoen. Bostak elkarrekin oihanera joan ziren. Oihanaren erdian tenplu bat topatu zuten. Oso leku bitxia zen hura! Karlos kontu handiz ibili zen; baina kapitaina eta beste hiru piratak, han barruan altxor bat topatuko zutelakoan, ezeri erreparatu gabe sartu ziren. Bat-batean, lurra zabaldu egin zen eta han erori ziren kapitaina eta piratak. Karlos, oso bihotz onekoa zela erakutsiz, soka bat lortu eta zulotik ateratzen lagundu zien. Tenplutik alde egitea pentsatu zuten. Ondoren, inguruan zeuden zuhaitzekin beste itsasontzi bat eraiki zuten.

Horretan ari zirela, Karlosi kolibri bat gerturatu zitzaion. Kolibria, keinuka, bere atzetik joateko esanez hasi zitzaion. Kolibriaren atzetik eremu magnetiko indartsua zegoen toki batera iritsi zen. Han zeuden harriek flotatu egiten zuten. Karlos harri baten gainean jarri eta, hegan, uhartetik atera zen. Halako batean, kostaldera iritsi zen. Harritik jaitsi eta, aurre-aurrean, hildako dinosauro bat ikusi zuen. Hari begira zegoela, zarata bat entzun zuen. Bira eman eta han ikusi zuen dinosauro Rex bat erasoan zetorkiola. Korrika atera zen handik. Aurrerago,



Amaia Idigoras

dinosauro baten baraila topatu zuen. Txalupa bat balitz bezala gaineen jarri eta itsasoratu egin zen.

Horrela, beste uharte batera iritsi zen. Uhartearen erdian sumendi bat zegoen. Nekatuta zegoen; baina, sumendiaren barruan seguruago egongo zela pentsatuta, hara joan zen.


Hurrengo egunean, esnatu zenean, ezin zuen sinetsi bere begien aurrean zegoena. Sumendiaren barrua diamantez beterik zegoen. Galtzetako poltsikoak diamantez bete zituen. Horretan ari zela, dardara sumatu zuen. Sumendia esnatzen ari zen! Halako batean, eztanda bat gertatu zen. Karlos airean atera zen. Zorionez, lastoz egindako menditxo baten gainera erori zen. Orduan, herri txiki batean zegoela konturatu zen. Hango jendea, suzko bola moduko bat ikustean, ingurura gerturatu zen. Karlosek gertatutako abentura guztiak kontatu zizkien.

Dena ametsa izan ote zen pentsatzen hasi zen; baina eskua poltsikoan sartu eta han aurkitu zituen diamanteak.

Herri hura asko gustatu zitzaion eta betiko han geratzea erabaki zuen. Diamanteak herritarren artean banatu zituen.

Handik aurrera, Karlosen bizitza lasaia eta zoriontsua izan zen.

Iker Sarasua



Saioa Basurko

Nire bihotza

Zerua ikustera noa ni gauez,
beteta egongo da izarrez,
ilargia baldin badago ere,
nire bihotza beteko da pozez eta barrez;
horrelakoa da zerua, baina nire hitzez.

Belarretan botako naiz ni goizez,
beteta egongo da zizarez,
eguzkiak berotzen badu ere,
nire bihotza beteko da pozez eta barrez;
horrelakoa da belarra, baina nire hitzez.

Horrelakoa da nire bihotza,
beti pozez eta barrez,
nire hitzez.

Rahgad Mautouk



Markel Azkue

Hiru txerritxoak

Ajala, ajala, ja!
Ajala, ajala, ja!
Hiru txerritxo
baziren,
baziren ja, ja!
Oso potoloak,
ez zuten nahi guretzat
solomo izatea,
eta beren ametsa zen
lasterka egitea,
La, lara, larala!
Lara, lara, lara!
eta ihes egitea.
Ajala, ajala, ja!
Hiru txerritxo
baziren,
baziren ja, ja.

Paula Eizagirre



Eñaut Bravo

Hiru amonak eta loreak

Bazen behin Zuberoko herri oso txiki bat, Larre izena zuena. Fabrikarik ez zegoen, eta herritarren bizimodua baserriarekin lotuta zegoen. Animalia asko zegoen: zaldiak, pottokak, txakurrak, katuak, behiak, astoak... eta errespetatzen zituzten.

Bostehun biztanlez osaturik zegoen herria. Herri hartan denek ezagutzen zuten elkar. Lorez inguraturik bizi ziren eta, beraz, Larreko jendeari loreak asko gustatzen zitzaizkion.

Baziren hiru amona, oso lagun minak zirenak: Ageda, Josepa eta Barbara ziren. Txikitatik ezagutzen zuten elkar eta Larren bizi ziren betidanik. Hiru amona haiei asko gustatzen zitzaizkien lore guztiak, baina gehienbat tulipanak, krabelinak eta arrosak.

Egun batean Josepari bururatu zitzaion mendira joatera bere bi lagunekin. Mendirako bidean konturatu ziren lorerik ez zegoela. Aurrera segitu zuten eta berdin: lorerik gabe zegoen mendia. Hiru amonak atsekabetuta sentitu ziren eta, korrika, herrira joan ziren, herritarrei esatera mendia lorerik gabe geratu zela eta zerbait egin beharko zela.

Herritarrek aztoratu egin ziren eta denak marmarrean ari ziren. Haur batek esan zuen:

—Egin dezakeguna da etxean dauzkagun haziak ekarri eta landatu mendian.

Herritarrei ideia ona iruditu zitzaion eta, nola antolatuko ziren pentsatu ondoren, herritar bakoitzak bere pala, eskuare, ureztagailu, hazi eta simaurra prestatu zituen.

Hurrengo egunean plazan zeuden guztiak beren tresnekin eta mendira abiatu ziren.


Aurrena simaurra bota zuten, gero eskuareaz zabaldu zuten, lurlean zuloak egin eta haziak bota zituzten. Azkenik, ureztatu egin zituzten eta herrira itzuli ziren.

Asteak pasa ziren, naturak bere lana egin zuen eta, pixkanaka-pixkanaka, landareak hazi ziren. Gertutik zaindu zuten lana, bere etekina eman zezan.

Egunak joan, egunak etorri, lanaren fruitua ikusi zen Larreko mendietan. Dena berriro lorez beterik zegoen.

Gaur egun Larren ez da lorerik falta herritarrei eta hiru amona horiei esker.

Ines Duran



Einer Aranguren

Arrastaka ibili nahi ez zuen sugea

Bazen behin Patxi izeneko suge bat. Patxik 10 urte zituen eta Iratiko oihanean bizi zen. Patxi sugegorria zen eta bazuen arazo bat bere bizitzan: ez zuen arrastaka ibili nahi!

Egun batean pentsatu zuen bere gorputz azpian zilindro moduko gauzaren bat jartzen bazuen, lortuko zuela, lurra ukitu gabe, alde batetik bestera mugitzea. Baina ez zuen zilindro moduko ezer aurkitzen eta, beraz, ezin izan zuen bere plana burutu.

Patxi, triste, basoan barrena ibili zen, baina ez zitzaion ezer bururatzen. Patxi animalia guztiak agurtzen zihoan eta beren ustez zer egin behar ote zuen galdetzen. Guztiek arrastaka ibiltzen jarraitzeko esaten zioten; baina, Patxik ez zuenez horrela pentsatzen, ez zien kasurik egiten eta alde egiten zuen tristerik.

Bat-batean, Patxik inurriak ikusi zituen. Inurrietako bat, Ander, Patxiren lagun-mina zenez, bazekien Patxiren guraria zein zen. Anderrek Patxiri esan zion bere azpian jarriko zirela bera eta bere inurritegiko inurri guztiak eta horrela garraiatuko zutela. Patxik ezetz esan zion, ez zutela bere pisua altxatuko. Anderrek azaldu zion inurriek beren pisua baino askoz ere gehiago altxatzen zutela, egia zela. Baina egia zen, baita ere, segituan nekatzen zirela.

Patxi, triste, basoan barrena zihoan eta, bat-batean, basoko jakintsua ikusi zuen. Patxik jakintsuari galdetu zion ea zer egin behar zuen eta jakintsuak esan zion bera zen bezalakoa izaten jarraitu behar zuela: sugea jaio zela eta suge bat bezala bizi behar zuela. Orduan, Patxi konturatu zen egia zela eta, egun hartatik aurrera, Patxi zoriontsu bizi da Iratiko oihanean.

Eta hala bazan eta ez bazan, sar dadila kalabazan eta atera dadila Iratiko oihaneko plazan!

Irati Elozegi



Salwa Elghailani

Nire bizitza nirea da

Egun batean, 1982ko Ingalaterrako herri behartsu batean, Michael izeneko mutil bat bizi zen. Ile marroia eta begi urdinak zituen eta bere bi aitekin bizi zen, batek ile gorria zuen eta besteak, beltza.

Michaelek, egunero-egunero, infernu bera bizi zuen: eskolan iseka egiten zioten, jo... Bere burua gutxiesten hasteko punturaino iritsia zen.

Bere aitek zer egin ez zekitela, babestuko zuen lagun on bat bilatzeko aholkatu zioten, baina horrek ez zion Michaeli askorik lagundu: gelakideek berdin-berdin egiten zioten iseka.

Gau batean triste-triste joan zen ohera eta amets bat egin zuen Michaelek...

Hiru espiritu etorri zitzaizkion: lehenengoak bere egoera txarra erakutsi zion; bigarrenak, nolakoa izango zen bere bizia egoerari aurre egingo balio; eta hirugarrenak, bera bezala egon eta aurre egin dioten haurrak erakutsi zizkion, horretarako adibide bat jarritz. Joli izeneko neska baten bizitza erakutsi zion. Joli afrikarra zen eta nahiko itsusia zen txikia zenean; baina alde batera utzi zuen besteek berari buruz pentsatzen zutena, kalte egiten ziolako.

Lehenengoarekin, bere burua nola tratatzen zuten ikusita, samindu egin zen. Bigarrenari esker bizitza zoriontsu bat ikusi zuen eta hirugarrenak, berriz, aurre egiteko gogoia eman zion.

Hurrengo goizean jaiki eta, bere buruarekin seguru, pozik eta aurrera egiteko gogoarekin esnatu zen.

Handik aurrera ez zitzaion axola besteek zer pentsatzen zuten. Axola zitzaion gauza bakarra bera pozik zegoela zen eta, handik aurrera, bere gelako gaiztoak inbidiaz hiltzen ziren.

Handik urte batzuetara...


Michael mutil eder bat zen, ume eta lan ederrekin, eta bere lehengo gelakide gaiztoek ez zuten lanik, umeak zirenean dena eginda ematen zietelako, eta Michaelek pentsatzen zuen:

—Jakina! Denak buelta eman dezake!

Hala bazan eta ez bazan, sar dadila kalabazan eta irten dadila Orioko plazan.

Eta ikasi: ez du axola besteek zer pentsatzen duten zutaz, baizik-eta zuk zer pentsatzen duzun zutaz.

Candy Ostolaza



Gartxot Atorrasagasti

Patxi bidaiaria

Duela hamar urte Patxi izeneko bidaiari bat bizi zen Lorga herrixkan. Bere lehenengo bidaia Madagaskarrera izan zen eta han Mohammed izeneko mutil bat ezagutu zuen. Handik aurrera elkarrekin egiten zituzten bidaiak. Mundu osoa ezagutu nahi zuten, hurrengo bidaia Txinara izango zela erabaki zuten.

Bost ordu zeramatzaten hegazkinean eta hamar orduko bidaia gelditzen zen eta, bitartean, Patxik siesta egitea erabaki zuen. Txinara iritsitakoan, gida batekin joan ziren turista talde batean. Txinan Shanghai-ra joan ziren eta han Yunnai erregea ezagutu zuten. Mohammed-ek, Yunnai erregeak burua alde batera eta bestera mugitzen zuela ikusita, urduri zegoela pentsatu zuen eta beregana joan zen hitz egitera. Patxi konturatu zenean Mohammed erregearekin hitz egiten ari zela, haiengana hurbildu zen.

Hurbiltzen ari zela, norbait erregea zelatatzen ari zela konturatu zen. Ongi begiratu eta zelatan zebilen gizon hura ezaguna egin zitzaion. Bezperan, afaltzen ari ziren bitartean, jatetxean ikusi zutela ohartu zen. Jatetxean gertaera arraro bat gertatu zen bezperan eta gertaera gizonarekin lotu zuen Patxik: afaltzen ari zirela, arroza mahai gainean jartzean, nahi gabe lurrera erori zitzaien eta katu bat zitzu batean joan, arroza jan eta bat-batean katua hil egin zen.


Gertaera hark harritu egin zuen erregea. Orduan, pentsatu zuen jakintsu batengana joan, arrozaren lagin bat erakutsi eta zein pozoi mota zen ikertu behar zuela. Hurrengo egunean jakintsu batengana joan eta lagina erakustean, pozoi mortala zela jakin zuten eta erregeak produktu kimiko haren saltzaile guztien zerrenda erakustea eskatu zien. Zerrendan bi saltzaileraren izenak agertu ziren: Lian eta Iker, baina konturatu ziren munduan bi denda bakarrik zeudela: bat Txinan eta bestea Euskal Herrian.

Txinako dendara joan eta pozoi mota hori aspaldi ez zutela saldu esan zion hango dendariak. Beraz, ziur zeuden Euskal Herrian saldu ziotela produktu kimiko hori gure susmagarriari.

Orduan, Patxi gogoratu zen Lorgaren ondoan, Arga izeneko beste herrixka batean, bazegoela produktu kimikoak saltzen zituen denda bat. Yunnai erregeak Patxi eta Mohammed-i hegazkinez egiteko bidaia ordaindu zien eta Euskal Herrira abiatu ziren.

Biak aireportutik atera ondoren, ehun metrotara zegoen denda hartara joan eta istorioa kontatu ondoren, produktu hura erosi zutenen pertsona guztien zerrenda erakustea eskatu zioten dendariari eta pertsona bakarra agertzen zen: Mali.

Txinako bueltan Yunnai erregeari zein zen susmagarriaren izena esan zioten:



Marina Zaldua

Mali. Maliren datuak aurkitu eta jakin zuten zein zen eta konturatu ziren bidaian lagundu zituen gida zela. Yunnai erregeari nor zen jakinarazi zioten eta erregeak gizon hura bilatu eta atxilotzea agindu zuen.

Handik aurrera, Patxi eta Mohammed Txinako seme kuttunak izendatu zituen Yunnai erregeak.

Hala bazan edo ez bazan, sar dadila kalabazan.

Iker Pielago

Zenbat...

Zenbat malko behar den,
tristura ezabatzeko.


Zenbat globulu gorri,
oxigenoa garraiatzeko.

Zenbat adreilu behar diren,
etxebizitza bat eraikitzeko.

Zenbat letra,
ipuin bat idazteko.

Birus bat nahikoa da,
mundua hankaz gora jartzeko.

Jugatz Aduriz



Candy Ostolaza

Liburutegia

Arratsaldean liburutegira joan naiz,
inor ez zegoen,
eserlekuak eta mahaiak hutsik zeuden,
arduraduna falta,
isiltasuna nagusi.


Halere, ez naiz bakarrik sentitu!

Egiptoko abestiak entzun ditut,
Txinako harresia ukitu,
Ozeano Barean marrazoak ikusi,
ipuinak dastatu,
eta tinta usaintzeko aukera ere izan dut.

Liburutegiko leihoek
Eusko Gudari kalera jotzen dute.
Jende asko dabil
erosketak egiten,
berriketan,
kutxatik dirua ateratzen,
kafea hartzen...

Halere, bakardadea sumatu dut
aurpegi askotan!

Naroa Larreta



Aiora Arriola

Albeoloak greban

Bazen behin albeolo gazte kuadrilla bat. Igande batean elkarrizketa serio bat izan zuten beren artean:

—Nazkatua nago! —egin zuen oihu albeolo batek, oso haserre.

—Baita neu ere! —erantzun zion anaiak.

—Zer egin dezakegu? —esan zuten bi anaiek batera.

—Ezin dugu horrela jarraitu —kexatu zen begi urdindun albeoloa—. Alazne gure nagusiak aste guztian izugarrizko lan pila eginarazten digu.

—Egia da! —erantzun zion ondokoak.

—Eta, gainera, asteburuan atsedena hartu nahi, eta are eta lan gehiago eginarazten digu. Behobia prestatzen ari da, eta larunbat eta igandeetan ito beharrean aritzen gara!

Albeolo gazte kuadrillako guztiak nazka-nazka eginda zeuden, horrenbeste oxigeno hartu eta horrenbeste karbono dioxido botatzeaz. Ez zekiten zer egin! Halako batean, belarrian eraztuna zeraman albeolo batek hauxe esan zuen:

—Burmuinarengana joango gara.

—Baina, horretarako, baimen berezi bat eduki behar da! Albeolook inoiz ez gara burmuinaren etxera joan —erantzun zion aurrekoak.

—Eta zergatik ez diogu eskutitz bat idazten, esanez berarekin hitz egiten ez badigu uzten greba egingo dugula?

Oso ideia ona iruditu zitzaien guztiei, eta halaxe egin zuten. Burmuinak handik bi egunera jaso zuen eskutitza postontzitik.

—Greba! Erotu egin al dira albeolo horiek? Berehala hitz egin beharko dut berekin!

Esan eta egin. Burmuinak dozena bat langile zituen berarekin lanean. Kontuak egiten aritzen zena bidali zuen biriketara.

—Kaixo, ni burmuinaren partetik nator. Irakurri dugu zuen mezua, eta zuekin zer edo zer adosteko asmoz etorri naiz.

—Eskutitzean esaten genuen bezala, atsedena behar dugu, neka-neka eginda gaude—eta —esan zion atea ireki zion albeoloak.

—Inoiz ez zaigu horrelakorik gertatu! Guk uste dugu zuen lana dela!



Julen Beraza

—Burmuinak ez al du atsedetik hartzen nekatuta dagoenean? Entzunda daukagu siesta galantak egiten dituela.

Igandean Alazneri 15 kilometro egin behar zituela esan zion entrenatzaileak. Lagun batekin abiatu zen Zarautz aldera. Hizketan ari zirela, Behobia bukatutakoan maratoia egin nahi zuela entzun zioten esaten albeoelak.

—Ezta pentsatu ere! Ezin dugu horrela jarraitu! —oihukatu zuen ezpainak margotuta zeramatzan albeolo batek—. Mezu bat bidaliko diogu burmuinari, esanez badaudela albeoloak langabezian daudenak, eta haiei deitzeko.

Burmuina sutan jarri zen mezua irakurritakoan:

—Ez dut etsiko!

Albeoelak historian lehen aldiz egin zuten greba. Alazne indarrik gabe gelditu zen, eta medikuarengana joan zen:

—Arnasa hartzerakoan, segituan nekatzen naiz —esan zion sendagileari.

—Ba, ezin duzu entrenatu. Atsedena hartu behar duzu!

Alazne oso-oso triste zegoen. Ezer egin gabe segituan nekatzen zen.

Ilunabar batean bihotza lasai-lasai zegoen telebista ikusten. Bat-batean, albistegietan, albeoloak greban zeudela esan zuten. Bihotzari ia bihotzekoa eman zion hura entzunda. Telefonoa hartu eta burmuinari deitu zion:


—Aizu, burmuin! Zer ari da gertatzen zu eta albeoloen artean?

—Kontua da albeoelak atsedendia nahi dutela, oso-oso nekaturik daudelako, baina nik esan diet horretarako daudela. Berek, orduan, greba egin dute.

—Baina zerbait egin beharko duzu, ezta? Arazoak hitz eginez konpontzen dira —esan zion bihotzak haserre samar—. Bi egun dituzu arazoa konpontzeko!

Burmuina berriro joan zen albeoloengana. Langabezian zeuden albeoelak txandak antolatuko zituela esan zien. Hori bai, Leirek asteburuetan entrenamendu luzeak egiten jarraituko zuela, eta Donostiako maratoia egitean, New Yorkekoa prestatzen hasiko zela.

Sara Mujika



Sara Mujika

Catherine

1998ko apirilaren 29an Catherine izeneko neska polit bat jaio zen Britainia Handian. Lan kontuengatik, bere familia Euskal Herriko Orio herrira etorri zen bizitzera. Beste hizkuntza bat hitz egiten zenez herrian, Catherinen gurasoek euskaltegian eman zuten izena, euskara ikasteko.

Jaio eta berehala, mediku batek zerbait arraroa sumatu zuen umearen aho aldean; baina, oso txikia zenez eta hitz egiten ez zuenez, bi urte betetakoan aho aldea begiratzeko esan zien gurasoei. Catherine hazten ari zen, baina bere ahotik ez zen soinurik irteten; txertoa jarri ziotenean ere ez zuen hotsik atera.

—Ume hau mutua da —esan zuen Donostiako medikuak.

Gurasoek nahigabe handia hartu zuten:

—Lasai, Peter —esan zion emazteak—, keinu hizkuntza ikasiko du Catherinek, eta horrela komunikatzea lortuko du.

Bi urte bete zituenean hasi zen ikastolan Catherine. Astean hirutan joaten zen Donostiara logopedarengana, eta ikastolan bertan ere irakasle bat zeukan keinu hizkuntza erakusten ziona.

Catherineri ura izugarri gustatzen zitzaion, gurasoekin askotan joaten zen hondartzara, eta etxean ere, baineran sartzen zenean, inoiz ez zuen nahi handik irten. Gurasoek, gazteak zirenean, igeri egiten zuten, eta berei ere asko gustatzen zitzaien urarekin zerikusia zuen guztia.

Uda batean, Catherine Maltara joan zen oporretara gurasoekin. Jada 20 urte zituen, baina urarekiko zaletasuna ez zitzaion desagertu; tranpolinetik jauziak egiten zituen, eta lehiaketa askotan parte hartzen zuen.

—Urpekaritza ikastaro batean emango dut izena —esan zien gurasoei.

Ur azpian sartzen zen lehen aldia zen, eta zeharo liluratutik zegoen Catherine. Arrainak asko gustatzen zitzaizkion, baina bereziki izurdeak atsegin zituen, eta bazekien ondoan izango zituela:

—Aaammmaaa! —esan zuen ur azpitik irten zenean.

Amak ezin zuen sinetsi entzundakoa.

—Catherinek hitz egin du! Catherinek hitz egin du! —oihukatu zuen.

Monitoreak esan zien gurasoei izurde bat ukitu zuela ur azpian, eta emozio handia sentitu zuela.



Eider Arizaga

Oriora itzuli zirenean, medikuarengana joan ziren. Gertatutako guztia kontatu zioten:

—Horrelako kasurik ez dugu inoiz ezagutu —erantzun zion zeharo harrituta.

Hurrengo egunetan, Catherinek betiko moduan jarraitzen zuen, mutu.

—Catherine, aurten Donostiako suak baporetik ikusiko ditugu —esan zion aitak.

Keinuz erantzun zion baietz.

Abuztua iritsi zenean, Donostiara abiatu ziren turismo bulegoak ipinitako baporean. Turista pila bat zegoen barruan. Alemaniako talde baten ondoan jarri ziren popa aldean; haietako bat keinu hizkuntzaz komunikatzen zela ohartu zen Catherine; beregana hurbildu eta elkarrekin aritu ziren *hizketan*.

Itsasora begira ari zirela, bat-batean, Catherinek izurdeak ikusi zituen saltoka.

—Aaammmaaa! Izurdeak daude itsasoan.

Gurasoak mutu geratu ziren entzundakoarekin, ikusten ari zirena sinetsi ezinik:

—Aaiitaa!

Aitari malkoak irten zitzaizkion hitz haiek entzundakoan. Alemaniar neskaren ahotik, ordea, ez zen ahotsik irten.

—Catherine, Catherine... zurekin hitz egin nahi dugu —oihukatu zion izurde batek.

—Zer nahi duzue? —galdetu zien Brendak.

—Zure alabaren laguntza behar dugu!

—Catherinena...?

—Bai, askotan ikusi dugu Catherine tranpolinetik jauziak egiten. Izurdeok jauzien txapelketa bat antolatu dugu, eta nahiko genuke Catherinek guri laguntzea!

—Baaiii... lagunduko dizuet —erantzun zien Catherinek.

Eta Catherine Madagaskarrera joan zen bizitzera. Han oso zoriontsua zen: izurdeak zituen ondoan, jauziak egiten pasatzen zuen eguna, eta... hitz egiten zuen!

Oriora itzultzen zenean, ordea, Catherine ez zen gai soinurik ahoskatzeko; hau da, izurdeengandik banatzen zenean, bere ahoari hitz egitea ahaztu egiten zitzaion. Herri guztia enteratu zen Catherineri gertatzen zitzaionaz. Herritar batek zera esan zuen:

—Eta Oria ibaiarekin hitz egiten joaten bagara?



Maddi Esnal

—Zertarako hitz egin ibaiarekin? —galdetu zuen Catherineren aitak.

—Ba, esango diogu izurde batzuk ekarriko ditugula ibaira bizitzera, eta galde-
tuko diogu ea prest al dagoen bere etxean hartzeko.

—Bai —erantzun zien ibaiak—. Horrela, lagun gehiago edukiko ditugu
jolasteko!

Izurdeak ere oso pozik etorri ziren Oriora bizitzera, zeren berei arraun egitea
asko gustatzen zitzaien. Eta Catherine ere poz-pozik zegoen, herritarrekin hitz
egitea bazeukalako.

Naroa Larreta


Nire umetxo polita

Nire umetxo polita,
nire umetxo kuttuna,
zer egun berezia,
zu jaiotako eguna.

Zu zara nire maitia,
zu nire txikia,
zu zara nire bihotza,
zu nire bizia.

Zuretzako izarrak,
zuretzako ilargia,
betirako izango naiz
zure bizitzako argia.

Dania Alguacil




Anboto Salsamendi

Gure ama lurra

Hau da, hau, edertasuna
guk daukaguna.
Halako zeru, halako lur,
naturak eman diguna.
Guk, ordea, ez dakigu zaintzen
ikusten duguna.
Begira gugatik egiten duena,
eta guk eskertzen dioguna.

Ai, gure ama Lurra,
gure poztasuna!
Zein gutxi eskertzen ari garen
bere emankortasuna.
Horrela jarraituz gero,
galduko dugu daukaguna.
Zain dezagun denon artean
galbidean duguna.

Joxe Mari Unanue



Malen Atxega

Luisa eta bere sekretua

Bada amona bat, Luisa izena duena. Luisak 80 urte ditu eta Getarian bizi da. Etxe handi batean bizi da, bere gurasoengandik herentzian jasotakoa. Beti bizi izan da bakarrik. Orain dela urte batzuk, Luisa azokara barazkiak erostera joan zenean, aldaka hautsi zuen. Orduz geroztik makulu batekin ibili izan da. Baina horrek ez du esan nahi ez duenik energiarik; kontrakoa, ez da geldirik egoten! Bere zaletasuna pastelak egitea da. Bizilagunak bisitan joaten zaizkionean, Luisak koko bizkotxo bat egiten die, eta oso goxoa ateratzen zaio.

Baina ez da dena ematen duena. Luisak badauka sekretu bat inork ez dakiena... Zer izango ote da?

Andoni eta Laura Luisaren bizilagunak dira. Oso ondo konpontzen dira, orain dela urte asko ezagutzen dutelako elkar. Andoni eta Laura Luisari bisitatxo bat egitera joan dira eta zerbait entzun dute:

—Andoni entzun duzu hori? —esan du Laurak.

—Bai, sinestezina izan da! —esan du Andonik, harrituta.

—Zer izango da?

—Goazen ikustera!

Orduan, Luisaren etxera joan dira eta gero eta gehiago entzuten da. Etxera sartu dira, baina Luisa ez da jabetu Andoni eta Laura sartu direla. Harrituta geratu dira: Luisa kantatzen ari da eta izugarri ondo, gainera! Hori da Luisaren sekretua.

Laurari ideia bat bururatu zaio:

—Zer iruditzen Luisa grabatzen badugu? —esan du Laurak baxu-baxu.

—Oso ondo! —erantzun du Andonik.

—Zuk graba dezakezu? —esan du Laurak lotsatuta.

—Jakina baietz!

Bost minutu beranduago...

—Grabatu dut! —esan du Andonik.

—Goazen Luisa jabetu baino lehenago! —esan du Laurak.

—Arrazoi duzu. Goazen azkar! —erantzun du Andonik.

Andonik nahi duena da herri guztiak Luisak nolako artea daukan jakitea. Eta



Intza Peña


lortu du. Bozgorailu handiak jarri ditu herrian, ondo entzuteko, eta pertsona guztiak galdetzen hasi dira zein den kantatzen ari dena, izan ere, oso ondo kantatzen du.

Laster herriko festak hasiko dira. Pentsatzen jarri dira, ea egokia ote den Luisak kontzertu bat ematea. Denek baietz esan dute eta alkateari proposatu diote. Alkateari ere egokia iruditu zaio Luisak kontzertu bat ematea; baina, horretarako, Luisari galdetu behar dio. Handik bi egunera, alkateak galdetu dio Luisari, baina hark ezetz erantzun du, urte asko dituelako eta ez dagoelako kondizio onenean. Herri guztia triste jarri da. Baina alkateari beste ideia bat bururatu zaio. Mundu guztiak jakitea nahi du Luisak duen artea eta, beraz, Andoni eta Laurari eskatu die egin zuten Luisaren grabazioa emateko eta, ondoren, alkateak Youtube-ra igo du. Horrela, mundu guztiak entzun ahal izango du Luisaren ahotsa.

Alkateak grabazioa Youtube-ra igotakoan, mundu guztiak entzun du eta harrituta geratu dira. Youtube-ko iruzkinetan jarri dute kontzertu bat nahi dutela. Alkateak, hori ikusi bezain laster, Luisaren etxera jo du eta esan dio mundu osoa dagoela bere kontzertu baten zain. Kontzertua Miamin izango litzateke, Ipar Amerikan. Bost egun utzi dizkio pentsatzeko. Bost egun horiek pasatakoan, azkenean, Luisa animatu egin da eta baietz esan dio, baina lagunduta joan behar du. Eta, azkenean, mundu osoa oso pozik gelditu da.

Orain mundu osoak daki zein den Luisaren sekretua.

Andrea Agudo



Aimar Irastorza

Lagun berri bat ikastolan

Badira hiru egun ikastolara lagun berri bat etorri dela. Down sindromea dauka eta Iñaki izena du. Zarauzkoa da, baina Oriora etorri da bizitzera. Gure adinekoa da, hau da, 12 urte ditu. Otsailaren 2an egiten ditu. Aurpegi zapala dauka eta begi txikiak, ez da oso altua eta potxolitoa da. Iñakik laguntzaile berezi bat dauka, Eider, oso jatorra. Baina orain ez da beti berarekin egoten.

Bizikidetzako ikasgaian geundela etorri da Iñaki. Niri oso jatorra iruditu zait, baina beste guztiei ez dut uste, oso aurpegi arraroa jarri baitute.

Jolas garaian eskubaloian ari naizela jolasten, Iñaki izkin batean ikusi dut, bakar-bakarrik. Pena eman dit eta beregana hurbildu naiz.

—Kaixo, Iñaki! —esan diot.

—Kaixo, nola duzu izena? —galdetu dit.

—Maialen naiz. Zer dela eta zaude hemen bakarrik?

—Futbolearen jolastera joan naiz, baina ez didatela jolasten utziko esan didate.

—Mutil hauek ez daukate sentimendurik! Zu lasai egon, nik hitz egingo dut irakaslearekin, baina astea bukatu arte itxaron beharko duzu, tutoretza ostiralean daukagu-eta.

Konturatzerako, irakaslea gelara igotzeko esanez ari da bere txilibituarekin.

Matematikan ari garela, beste mutilak Iñaki zirikatzen hasi dira. Niri ez zait batere ondo iruditu eta Iñakiri laguntzen hasi naiz.

Eguerdian, etxera iritsi naizenean, bazkaldu eta Down sindromeari buruzko informazioa bilatzen hasi naiz. Informazio horrekin ikasi dut sindromea duten pertsonen jaio aurreko arazo bat dutela 21. kromosomaren bikoizketan.

Oso azkar pasa zait denbora eta gehiago egiteko gogoarekin geratu naiz. Orduan bururatu zait, gauean kontzertua eta gero, aurkezpen bat egitea Down sindromeari buruz.

Kontzertuaren ondoren, etxera iritsi naiz eta aurkezpena egiten hasi naiz, amak pixka bat lagundu dit berak lankide bat duelako, Down sindromea duena. Ondoren, aita etorri denean, berak behar zuen ordenagailua eta, hortaz, ordenagailua utzi eta ohera joan naiz.

Hurrengo egunean, esnatu naizenean, betiko moduan gosaldutatu, jantzi eta ikastolara joan naiz. Pergolan zain nengoela neskekin, Iñakik kasu egin dit:

—Kaixo, Maialen!

—Epa Iñaki, zer moduz?

—Oso ondo nago, eta zu?

—Ni ere bai. Uste dut zure ama deika ari zaizula.

—A, bai! Egia da! Agur!

—Agur, Iñaki!

Iñaki joan denean, neska guztiak errieta egiten hasi zaizkit:

—Baina, baina... zu ondo al zaude?

—Zer egiten duzu berarekin hitz egiten?

—Zu gaizki zaude burutik edo zer? Mesedez, nola hitz egiten duzu berarekin!

—Barkatu, neskak, baina Iñaki gu bezalakoa da eta ez zaio gutxiago bezala tratatu behar, eta nik berarekin nahi badut hitz egin berarekin hitz egingo dut. Ez dut onartuko ez iseka egitea, eta ezta gaizki tratatzea ere, gu bezalakoa da-eta.

—Bale... Lasai, e? —esan dute denek batera.

Gelara igo gara eta lanean hasi naiz, haserre neskekin. Jolas garaia iritsi da eta, berriz, Iñaki ikusi dut bakarrik izkin batean eta esan diot gurekin ibiltzeko eskubaloian eta gurekin ibili da, hala da, baina besteek arraro begiratzen zioten.

Arratsaldea da. Ikastolan txirulako azterketa daukagu. Iñaki jotzen ari denean, denak hitz egiten ari dira eta Iñaki urduri jarri dute. Ondoren, kantatzen ari garela, esan diote oso gaizki kantatzen duela eta nik esan diot:

—Iñaki, zuk hauei ez egin kasurik. Berek kantatzen dute gaizki, zuk oso ondo kantatzen duzu.

Orduan, Iñaki lasaiago geratu da.

Iritsi da ikastolatik ateratzeko ordua eta, ikastola bukatu orduko, etxera joan naiz. Down sindromea buruzko aurkezpena bukatzera. Azkenean, bukatu dut eta asko gustatu zait nola geratu den.

Ama etxera iritsi denean, erakutsi egin diot eta asko gustatu zaio berari ere, eta pentsatu du bere lankideari erakustea.

Azkenean, iritsi da ostirala, irakasleari esateko gertatu den guztia.

Jolas garaitik iritsi garenean, Iñaki etorri da, esanez Gorka komunean geratu dela atea ireki ezinik. Orduan, irakasleak Josebari deitu dio, ateratzeko esateko. Gelara bueltatu garenean, tutoretzan, nik Iñakiren gaia atera dut eta Gorka hasi da esaten,

bera komunean itxita geratu denean, oso urduri jarri dela eta Iñaki denbora guztian berarekin egon dela, bera lasaitzen, eta barkamena eskatzen diola egin dizkion itsuskeria guztiengatik. Gorkak hori esan ondoren, denak konturatu dira, nahiz eta Down sindromea eduki, bihotz handia duela, gu bezalakoa dela eta beregandik asko ikasi dezakegula.

Egun hartatik aurrera ikaskideen jarrera aldatu egin da eta beste edozein bezala hartu dute Iñaki. Egia esan, maitagarria da!

Laida Urbitarte



Amaia Izagirre

Maite ditut

Maite ditut
gure paisaiak,
apaintzen dituztenean
euri tantek.


Maite ditut
gure txokoak,
betetzen dituztenean
herritarrek.

Maite ditut
gure mendiak,
igotzen dituztenean
turistek.

Maite ditut
gure urak,
disfrutatzen dituztenean
gazteek.

Maite ditut
gure parkeak,
gainezkatzen dituztenean
herriko haurrek.

Eider Peiro



Ane Ibarbia

Amets galdua

Gauero-gauero,
pozarren dut amesten.
Gauero-gauero,
super heroia banintz
bezala amesten.

Gauero-gauero,
pozarren dut amesten;
baina,
goizean esnatzean,
ez naiz gogoratzen.

Mesedez, etorri dadila
nire amets galdua.
Mesedez, etorri dadila
super heroi arima.

Eider Urain

Bakarrik inoiz ez

Hiruhilabetekoaren erdian geunden, eta beti bezala esnatu nintzen. Ohea egin, gosalduta, jantzi eta ikastolara joan nintzen lagunekin. Gure gelako atzeko azkenengo mahaian, mutil eder bat eserita zegoela ohartu nintzen. Irakasleak esan zigunez, Ingalaterratik etorri berria zen, gaztelania ikasi nahi zuelako, eta gure artean urtebetez egongo zela ohartarazi zigun. Asko hunkitu nintzen, izan ere, oso ederra iruditzen zitzaidan. Lehen bi orduko klase osoak, hari begira pasa nituen. Nire lagunak horretaz ohartu ziren, eta jolas-garai guztian niri hori gogorarazten pasa zuten. Ondorengo bi orduetan gutxiago begiratzen saiatu nintzen, baina ezinezkoa zen. Horietako batean, mutikoak ikusi egin ninduen, berari begira ari nintzela ohartu zen. Emozioz eta urduritasunez, ia bihotza geratu zitzaidan; ez nekien zer egin, eta klasea bukatu arte ez nion berriz begiratu.

Hurrengo egun guztiak horrela pasa nituen, berari begira. Maitemindu egin nintzen. Haren ezti koloreko begiak, eta kizkurrez osatutako ile horiak, nire buruaz jabetu ziren guztiz. Burua jaten nuen ez zidalako kasurik egiten, edota oso

gutxitan begiratzten zidalako. Egunak pasatzen nituen hari hitz bat esatekotan, baina lotsa ematen zidan. Eta ez banintzen nahikoa beretzat?

Gau batean, lorik ia egin gabe, pentsakor pasa nituen orduak. Egun hura zen egokiena. Egun hartan esaten ez banion, amore eman eta ahaztea hobe izango zela pentsatu nuen. Esnatzerakoan —edo, hobe esanda, ohetik altxatzerakoan— nituen jantzirik politenak jantzi nituen. Urduritasunak ia jan zidan. Ikastolako bidea isil-isilik egin nuen, nire gauzetan pentsatzen. Iritsi zen ordua. Sentitzen nuena kontatzeko ordua. Egun hartan klasera berandu iritsi zen eta, ondorioz, ez nuen aukerarik izan nire sentimenduak kanpora ateratzeko. Tamalez, ez nuen jolas-orduan ikusi. Eguerdiko txirrinak jo zuen. Momentu hori, minutu hori, zen aproposena esateko. Beregana hurbildu nintzen. Euskaraz hasi nintzen. Lotsatuta, ez zuela ulertzen esan zidan. Buruan nuen guztia kontatu nion: begirada horien guztien arrazoia. Isilik geratu zen momentu batez. Gaizki egin nuen zerbait, momentu hartan garbi ikusi nuen akats bat izan zela sentitzen nuena kontatzea. Atzera egin nahi nuen berriz. Momentu lotsagarri hura eta gero, zerbait esaten hasi zen. Pentsatu egin behar zuela ulertu nion, eta korrika alde egin zuen. Gaizki, gaizki atera zitzaidan hori.

Hurrengo egunetan mutikoa ez zen gelara azaldu, eta nire buruko min eta tri-pako minak handitzen zihoazen. Hurrengo astean azaldu zen. Egin zuen lehenengo gauza niregana etortzea izan zen. Berriz, urduritasuna sentitzen hasi nintzen, baina momentu horretan garaitzea lortu nuen. Ez nekien bere izena. Nolatan pasa zitzaidan hori? Berari zerbait esaten utzi baino lehen hori galdetu nion. Michael, Michael zen bere izena. Perfektua, bera bezala. Mike deitzeko eskatu zidan, gehiago gustatzen zitzaiolako. Galdetu zidan ea arratsaldean hitz egiteko geratuko ginen. Entrenamendua nuen, baina ez neukala ezer esan nion, aukera hura ez baitzen galtzekoa.

Seietan geratu ginen. Urduritasunez, bostetan joan nintzen. Hau lotsa. Seiak hamar gutxitan etxetik atera eta, korrika, geratu ginen tokira joan nintzen. Michael maitea —hau da, Mike maitea— han zegoen nire zain. Gorri-gorri jarri nintzen. Eta, nire egiazko urduritasuna erakusteko, barrez lehertzen hasi nintzen. Arratsalde guztia hitz egiten pasa genuen. Garbi utzi zidan ezin genuela urrats handirik eman, baina eskertu zidan berari hitz egiten hastea, lehenengoa izan omen nintzen-eta. Jolas-orduetan futbolean ibiltzen zen, baina taldean ia hitzik ez zuen esaten. Asko harritu nintzen. Nola baztertu daiteke horrelako mutil bat? Bestalde, poztu ere egin nintzen, izan ere, bere egonaldiko lehenengo laguna nintzen-eta.

Hurrengo egunetan egunero geratzen ginen seietan betiko lekuan. Ondoegi pasatzen nuen berarekin, lotsarik gabe kontatzen genizkion gauzak elkarri. Berak esan zidan lau urte zituenetik garbi zeukala Espainiara joan nahi zuela. Espainiako kultura, hizkera, jendea... dena gustatzen zitzaiola. Beste bi arreba zituela ere esan zidan: bat bi urte zaharragoa eta bestea urtebete gazteagoa. Nahiz eta aitak ez zuen

nahi, amaren baimena lortu zuen hona etortzeko. Beste hainbat kontu ere esan zizkidan. Jolas-orduak ere batera pasatzen genituen. Nire etxetik gertu bizi zenez, batera joaten ginen ikastolara.

Egunen poderioz, euskaraz hitz egiten hasi zen. Ingeles azentu puntua zuen. Baina azkar hasi zen beste guztiakin normal hitz egiten. Bere hasierako helburua gaztelaniaz hitz egiten ikastea bazen ere, euskara gehiago gustatzen zitzaiola onartu zuen.


Egun batean irakasleak beregana deitu zidan. Beste lagunekin ere ibili behar nuela esan zidan. Ez nion kasurik egin. Mikerekin gustura ibiltzen nintzen, eta bera nirekin ere bai. Ohiturak ez genituen aldatu. Irakasle hark ez zidan esango nik zer egin nezakeen edo zer ez.

Arratsalde hartan bertan Mikek proposamen bat egin zidan. Galdetu zidan ea asteburuan irteera batera joan nahi nuen. Nik segituan esan nion baietz. Hasieran amak ez zidan utzi; baina, asko eztabaidatu ondoren, lortu nuen baiezkoa.

Hurrengo egunak luzeegiak izan ziren. Orduan ohartu nintzen klaseetan arreta gehiago jarri behar nuela, bi astetara azterketak zirelako. Asteko azkenengo bi egunetan betiko lagunekin joan nintzen ikastolara. Lagunek galderak eta galderak egin zizkidaten, baina nik motz-motzean erantzuten nien. Ez nituen jende artean zabaltu nahi gu bion arteko kontuak. Lagunek esan zidaten, Mike etorri zenetik aldatu egin omen nintzen. Nire iritziz, hobera aldatu nintzen, bizitza poztu zidan-eta Mikek.

Asteburuan Frantziara joan ginen, hango hondartza batera. Hondartza hura oso aproposa omen zen surfa egiteko. Horregatik, Mikek surfeko ohola eramane zuen. Hori ez zidan ordura arte kontatu, baina surfa egitea asko gustatzen zitzaion. Harritu egin nintzen. Surfa gustatu baino gehiago egiten zitzaiola ematen zuen, profesionala zirudien. Hondarretan hamaiketako jaten hasi ginenean, frantses batzuk hurbildu zitzaizkigun. Mikerekin hitz egiten hasi ziren, frantsesez! Egun hartan bigarren aldiz harritu nintzen. Frantsesez ingelesez bezain ondo zekien. Haserre plantak eginez, esan nion oraindik gauza asko zeuzkala niri kontatzeko. Barrez lehertzen hasi zen. Arratsaldea iritsi zenean, zerua laranja eta gorrixka jarri zen. Oso momentu erromantikoa, egia esan. Etzanda geunden, nire burua bere bularraren gainean. Bat-batean, begiratu egin zidan. Bere burua nire bururantz mugitzen hasi zen. Nire lehenengo muxua. Ezin nuen sinetsi ere egin, nire lehenengo muxua Michaellek eman zidan. Berak ere zerbait sentitu behar zuen nigatik, muxua berak eman baitzidan.

Bueltako bidea isilik egin genuen. Eskerrak. Larunbata zenez, hurrengo eguna genuen gauzak garbi uzteko. Eta hala egin genuen: igandean gauzak garbi uzteko geratu ginen. Nik, egia esan, pauso bat gehiago emateko gogoia nuen. Mike ikusi nuen lehenengo egunetik maitemindu egin nintzelako. Bestalde, lagunik onenak eginak geunden eta, nahiz eta urrats handirik ez eman, oso ondo pasatzen genuen.



Magid Boujenaa

Igande arratsaldean elkar ikusi genuenean, lehenengo hamar minutuak herritik paseatzen egin genituen hitzik esan gabe. Ni hasi nintzen, larunbatean zer gertatu zen galdetzen. Berak barkamena eskatu zidan. Egia esan, arrazoirik gabe, nik hori gertatzea nahi bainuen. Orduantxe baimena eskatuta, eskua hartu zidan. Lotsa pasa nuen, ez bainuen inoiz horrelako harremanik eduki. Orduak pasa ondoren, biok garbi utzi genuen saiatu egingo ginela pauso bat gehiago ematen. Geratzen ziren minutuak hitz egiten eta barrez pasa genituen, eskutik helduta.

Hurrengo egunean, batera joan ginen ikastolara. Tamalez, nire lagunak topatu genituen bidean, eta eskutik helduta jarraitzen genuen. Nire lagunak ez zuten hitzik ere egin. Jolas-orduan berekin esertzea izango zela egokiena pentsatu nuen. Galderak eta galdera gehiago egiten zizkidaten. Ideia txarra izan zen han esertzea. Berekin esertzen nintzen bakoitzean beti gauza bera gertatzen zen: galderak eta galderak egiten zizkidaten, asper-asper egin arte.

Etixerako buelta bakarrik egin nuen. Estresatuta sentitzen nintzen momentu hartan. Eta arratsaldean ez nintzen ikastolara joan, buruko min handiegia neukalako eta mareatuta sentitzen nintzelako.

Asteak batzuk pasa ondoren, gau batean, goizeko hiruretan, dei bat jaso nuen. Mikerena. Deia bukatutakoan, negarrez hasi nintzen. Michaeli minbizia diagnostikatu zioten. Ezin nuen notizia hura jasan, ezin nuen. Garbi pentsatzeko zailtasunak nituen. Tripan, bihotzean, buruan... jostorratz ziztadak eman balizkirate bezala sentitzen nintzen. Inoiz ez nintzen okerrago sentitu. Egun hartan normalean baino ordubete lehenago esnatu nintzen, lo egin ezinik nengoelako. Oso zatar jantzi nintzen, ez nuen-eta ezertarako gogorik. Klaseetan ia lo hartzen nuen; ezin nuen gehiago.

Eguerdiko txirrina jotzerakoan, korrika alde egin nuen etxera. Etxera iristerakoan, beste dei bat jaso nuen. Gaueko zenbaki berbera. Ez... Ez nengoen beste notizia txar baterako. Michael zen. Australian zuten bere gaixotasuna sendatzeko beharrezkoa. Gainera, tratamenduak urtebeteko iraupena zuela esan zidan. Bihotza oinetaraino erori zitzaidan momentuan. Eta orain zer?

Momentuan bururatu zitzaidan ideia bakarra korrika bere etxera joatea izan zen. Mikerena etxera iristerakoan, txirrina jo nuen, baina ezer ez. Hiru aldiz segidan jo, eta berdin. Portalean emakume edadetu bat azaldu zen eta, ni negarrez ikusita, segituan galdetu zidan zer gertatzen zitzaidan. Ez nion nahi kontatu. Garbi zegoen emakumeak zerbait zekiela, ohar bat eman zidalako. Michaellek utzi zion niretzat ohar hura. Honela zioen:

Hi, my darling:

Badakit errazera jo dudala eta ez dagoela ondo notizia txar hauek mezu edo telefono dei baten bidez ematea, baina horrela hobe zela pentsatu nuen. Orain dela hilabete batzuk dakit minbizia dudala, baina ez nuen inoiz momentu aproposik aurkitzen zuri notizia emateko.



Ramunas Almanaitis

Azken hilabete hauek nire bizitzako onenak izan dira zure ondoan eta badakit ez ditudala inoiz ahaztuko. Medikuek ez dute garbi sendatuko naizen edo ez. Ez banaiz sendatzen, nire hurrengo bizitza zuri itxaroten pasako dut, minuturo zugan pentsatzen. Eta sendatzen banaiz, segituan joango naiz zuregana, nire bizitza osoa zure ondoan pasatzeko.

Berriz ikusiko garelakoan, yours sincerely.

Michael J. R.

Negarrez hasi nintzen. Ni ohartzerako, emakume hura joana zegoen. Egia esan, hobeto sentitzen hasi nintzen. Mezuak hobeto sentiarazi zidan. Neuzkan zalantza guztiak argitu zizkidalako, eta are eta maiteminduago sentitzen nintzen.

Egunak joan, egunak etorri, nire bizitza berriz egiten hasi nintzen. Mike gabeko bizitza. Berriz lagunekin ibiltzen hasi nintzen. Garbi zegoen ez zela gauza bera. Hasierako lagunak galduta nituen. Ez ziren nirekin berdin ibiltzen. Nire aurrean beti bezala ibiltzen saiatzen ziren; baina, badakit nire atzetik gauza txarrak esaten ibiltzen zirela nitaz.


Mikeri deitzekotan egon nintzen. Telefono zenbakia idatzi eta botoi berdeari sakatu nion. Ezer ez. Inork ez zuen hartu. Australiara joan behar nuen. Michael behar nuen. Baina nola lortu Australiarako bidaia? Munduaren beste aldera nola joan? Nire adinarekin ia ezinezkoa iruditu zitzaidan. Amari mesedez eskatu nion: Australiara joan behar nuela, hil edo biziko momentua zela... Ez nuen lortu.

Gelako batek handik bi asteetara Australiara joan behar zuen. Hori zortea! Berarekin joan nahi nuen. Galdetu egin nion, ez neukan-eta ezer galtzeko; baina ez zen posible, hegazkinerako dirurik ez geneukalako. Handik hiru egunetara, ordea, lagun haren deia jaso nuen. Ezin zuen Australiako bidaia egin, bere amak istripu larri bat izan zuelako eta, beraz, niri eman nahi zizkidan bere bidaiaren txartelak, erdi prezioan. Amari segituan galdetu nion eta baietz esan zidan. Biak joango ginela Australiara. Asko poztu nintzen, gehiegi. Ezin nuen sinetsi bi asteetara nire Mike maitea ikusiko nuela!

Iritsi zen eguna, Australiako bidaia egitera nindoan, eta handik bi ordutan aterako zen hegazkina. Emozioz, negarrez hasi nintzen. Hegazkinera hamar minutu lehenago igo ginen. 3, 2, 1...

Eta bidai hura egin ondoren, nire bizitza erabat aldatu zen. Orain Australian bizi naiz. Mikereren ebakuntzak perfektu joan ziren, nahiz eta urte bat nahiko gaizki pasa. Minbizia desagertu da bere gorputzetik. Mike eta bere Ingalaterrako familia Australiara etorri dira bizitzera, eta orain bizilagunak gara. Ez nuke atzera egingo nire bizitza berriz hasteko, hau perfektua baita.

Oihana Olasagasti



Naia Garro

Arraunlari baten bizitza

1989ko irailaren 8an Jokin izeneko mutiko bat jaio zen arrantzale familia handi batean: alde batetik bere aita, Xabier, arrantzale bat zen, beti itsasora atera eta arrain fresko eta goxoa ekartzen zuena; bestetik, bere amak, Arantxak, arrandegi batean lan egiten zuen eta berak ere arrain pixka bat ekartzen zien; eta, bukatzeko, bere hiru arrebak. Lehenengoak, Anek, 14 urte zituen eta zaharrena zen; beti bere ile beltza motots batean bildurik eramaten zuen. Bigarrenak, Idoiak, 11 urte zituen eta, Anek ez bezala, kolore marroiko ilea zuen; ez zuen sekula bakean uzten Jokin. Azkenik, arreba gazteena zegoen, Intza, 9 urte zituen. Hirurak elkarrekin egoteaz gain, elkar asko laguntzen zuten. Imajinatzen duzue Jokin gaixoaren bizitza hiru arrebeekin? A, zer nolako zoritxarra! Beti berari botatzen zioten guztiaren errua, txikiena zelako.

Egun normal bat zen berentzat. Aita itsasoan zebilen arrantzan, marea luze batean, eta Jokinek, 6 urte zituenek, ikastolara joan zen beti bezala, ikastera eta lagunekin egotera. Baina, lau anai-arrebak itzuli zirenean, ikusi zutenak kezka sortu zien; izan ere, ama sukaldeko mahaiaren ondoan eserita zegoen, beren aitaren argazki bat eskuan hartuta, eta, begiak altxatu zituenek, Jokinek ikusi zuen orbitetarik ia aterata eta gorri-gorri zeuzkala hainbeste negar egiteagatik. Amak hauxe esan zien ahots baldar eta tristearekin:

—Oso notizia txarra jaso dut gaur gutun honetan.

Anek, orduan, gutuna hartu eta irakurtzen hasi zen:

Idoia anderea:

Jakinarazi nahi dizugu, orain dela lau egun zure senar Xabier eta berarekin lan egiten duten beste arrantzaleak, arrantzan ari ziren bitartean, eguraldi txarrak harrapatu eta hondoratu egin zirela. Guk hori dakigu. Izan ere, hondartzan itsasontzi baten atalak azaldu dira: egurrak erreta nahiz puskatuta, beren sareetan harrapaturik geratutako arrainak, arrantzarako kanaberak, zirak...

Gobernuak ahal duena egingo du hildakoen gorpuak aurkitu eta zuei laguntza emateko.

Adeitasunez eta sentimenduz,

Jabier Esnaola

Irakurtzen bukatu zuenean, denak isilik gelditu ziren lurrari begira. Ane amarengana hurbildu eta besarkada bat eman zion, Idoiak bezala. Intzak, ordea, Jokinen lur jotako aurpegia ikusi eta beregana joan zen besarkada ematera. Besarkada estua izan zen eta tartean sentimendu asko biltzen zituen; hori dela eta, Jokinek Intzaren jertsean negar zotinen arrastoak utzi zituen... Ez zuen ezer

ulertzen. Nola zen posible, gaur egungo aurrerapen teknologikoak kontuan hartuta, itsasontzia hondoratzea? Zer gertatu zen itsaso zabalean?

Handik lau urtera, aitaren falta sumatuz baina egoeraz pixkanaka ahaztuz, Jokinek 10 urte zituenean, arraun elkarte bat sortu zuten Orion. Jokin oso kirol zalea zen eta egunero kirol ugari praktikatzen zituen. Hori horrela, eta inguruko herrietako arraunlariek kirol munduan irabazten zuten ospea kontuan izanda, kirol hori probatzera joatea erabaki zuen. Hasieran zailtasunak eta gabeziak besterik ez zizkion aurkitzen arraunari, eta beretzat kirol zaila zen; baina, zenbat eta gehiago ibili, orduan eta gehiago gustatzen zitzaion. 14 urte egin zituenean iritsi zitzaion bere lehenengo estropada jokatzeko aukera eta, nola ez, hainbeste entrenatu ondoren, irabazi egin zuen. Jokin mutiko saiatua eta diziplinatua zenez, bere arrauneko garaipenen arrastoez urtetan iraun zuten; denborarekin, Donostian jokatzen den Kontxako bandera ere hiru aldiz irabaztera ere iritsiko zen.

Egun batean, entrenatzen ari zirela, zurezko kaxa handi bat aurkitu zuten itsasoan eta barruan aitona bat zegoen, arropa zahar eta kirasdunarekin. Arraun elkartera eramane zuten, dutxak non zeuden esan eta arropa berria eman zioten, bere itxura fisikoa hobetzeko asmotan. Dutxatzen bukatu zuenean, denak haren ondoan jarri ziren eta bere istorioa kontatzeko eskatu zioten. Aitonak istorioa kontatzen hasi aurretik, listua bi aldiz tragatu eta arnasa sakon hartu zuen. Inguruan zituen guztiei begiratu eta iraganean pasatakoa ongi gogoratuko ez balu bezala, poliki, bere istorioa kontatzen hasi zen:

—Nik Xabier dut izena, eta orain dela zortzi urte, Azore uharteetara arrantza egitera gindoazela, ekaitz batek harrapatu gintuen itsasoaren erdian. Zoritxarrez, gure itsasontzia hondoratu egin zen, eta ni izan nintzen bizirik atera zen marinel bakarra. Egunak pasatu nituen gure itsasontziko egur zati bati helduta, korronte eta haizearen noraezean; hala ere, zorte izugarria izan nuen, izan ere, nire ondotik Afrikatik Ingalaterra bidean zihoan merkantzia-ontzi bati seinaleak egin eta nire bila gerturatu baitzen. Izandako esperientzia kontatu nien, nondik nentorren eta zein nintzen jakin zezaten. Itsasontziko langileek izugarrizko harrera egin zidaten eta beren artean langile bat gehiago bezala onartu ninduten. Patroiak azaldu zidan beti Afrikatik Ingalaterrara egiten zituztela bidaiak, produktuak saltzeko asmotan, eta galdetu zidan ea nik ere lan horretan laguntzarik eskaini nahi nien. Nik, nola ez, baiezkota eman nion. Gauza pila bat ikasi nituen bidaia hartan; baina, batez ere, nire familiarekin gogoratu nintzen izugarri. Azken finean, Ingalaterrako egunerokotasunean ikusi eta bizi izan nituen guztiak, nire familiarekin izandako esperientziak ekartzen zizkidan gogora: igande arratsaldetako antzerki saioak, uda garaian gure herrira etorritako zirkuko malabaristak... Kontuak kontu, familia buruan hainbeste denboraz eduki ondoren, azkenean, Ingalaterratik Frantziara zihoan itsasontzi batean baimenik gabe sartzea erabaki nuen eta Frantziarainoko bidea egin nuen itsasontziko bodega beltz eta hotz batean. Frantziako kostak ikusten hasi zirenean, zehatzago esanda, Landak inguruan kokatu ginenean,

zurezko kaxa bat hartu, arropa lehorrarekin eta janariarekin bete eta itsasora salto egitea erabaki nuen, berriz ere korronte eta haizeen menpe geratuz. Horiei esker, hain zuzen ere, Kontxako badiara iritsi nintzen eta zuekin elkartu. Zuei esker, berriz ere hankak lurraren gainean jartzea posible izan dut.

Jokinek bere inguruko norbaiten antza hartzen zion gizon hari eta, gainera, familiari buruz kontatuko ohiturak oso ezagun egiten zitzaizkion. Horregatik, familiaren inguruan zerbait kontatzeko eskatu zion agureari.

—Ba... Nire familian, lehen esan dudan bezala, emazte bat dut, Arantxa izenekoa, arrandegi batean lan egiten duena, eta lau seme-alaba: semeak Jokin du izena eta orain, nire ustez, 14 urte edukiko ditu; gero, nire alaba zaharrena, Ane, 24 urterekin. Bigarren alabak, Idoiak, 21 urte ditu eta gazteenak, Intzak, 18. Zergatik duzu nire familiaz informazioa eskuratzeko hainbesteko interesa, gazte?

—Nik ere aita orain dela zenbait urte itsasontziko istripu batean galdu nuen; nire amak ere Arantxa izena du eta hiru arreba ditut zuk aipatutako hiru izen horiek dituztenak. Horrekin nahikoa ez baduzu, zure semearen izena Jokin dela esan duzu eta ni ere hala naiz.

—Ezin dut sinetsi, ez zara, ba, nire Jokin txikia izango?

—Aita...! Benetan bizirik zaudela?

Harridura eta isiltasuna zen nagusi arraun taldeko partaide guztien artean. Jokinek aita berriz ere ikusteko esperantza galdua zuen, hilik zegoela pentsatzen zuelako eta, hara non, egun batean entrenatzera itsasora irten eta zortzi urtez desagerturik egondako aita berreskuratu duen.

—Zergatik ez diguzu Ingalaterratik deirik egin? Non egon zara azken urte guzti hauetan? Zergatik gaurko egun honetan gurekin topo egin duzu?

—Lasai, seme, nahikoa une izango dugu galdutako denbora errekuperatzeko. Orain, eraman nazazu mesedez mundu honetan gehien maite ditudan pertsonak ikustera; ez dakizu zenbat denbora eman dudan zuekin pentsatzen... egunero zuekin pentsatu eta ematen zenidaten indarragatik izan ez balitz, ez nintzateke hemen egongo.

—Eskerrak berriz ere gure artean zauden, aita. Ez da batere erraza suertatu urte hauetan guztietan zure hutsunea betetzea. Goazen familiako beste kideengana eta elkar gaitezen orain dela zortzi urte bezala, etxeko egongelan igande arratsaldea izango balitz bezala, guztiok elkarrekin, elkarri begira eta elkar entzunez. Gurea, oraindik ere, familia sendo eta elkartu bat da.

Hauxe izan da nire istorioa: neu naiz Jokin, aita galdutako semea eta zortzi urte geroago kaxa baten barruan Kontxako badian aurkitu zuena.

Ramunas Almanaitis



Itziar Irastorza

Lege hausteen aurka

Inoiz lagundu ez zidan legea izango naiz,
traizioaren sendaketa izango naiz.
Zortea bukatzen den lekuan hasten naiz ni,
nire ezpataren azpian aurki daiteke
errege eta agintarien beldurra,
nire beldurren artean loratzen da
haiek hortzik gabe uzteko premia.
Erabaki dut agintzen nauen jende guztiaren
zigorra izango naizela.
Gezurak gezurtientzat direla.
Eta promesak betetzea ez dela erraza.
Nik nahi dudana
ahulak irabaztea da,
indartsuak negar egitea,
ausartak ihes egitea,
eta beldurtiak munstroei aurre egitea.
Indarra ezer ez daukadan lekutik atera behar dut,
jendeari esateko, ateratzeko, borrokatzeko,
iristear dagoenaren aurka.

Borja Esnal



Monika Uranga

Beldurra

Zure beldur naiz,
nire beldur,
munduaren, haizearen,
maitasunaren, itzalaren beldur.
Guztiaren beldur naiz!
Izenik gabe,
memoria gabe,
gorputzik gabe,
eternitatean
ahaztuta eta isilik
egotearen beldur
erori naiz.

Igor Romero

Ezinezko amodioa

16 urte zituen mutilak, eta herri txiki batean bizi zen. Noah izena zuen eta herri hartako familiarik aberatsenean jaio zen, nahiz eta bera beste edozein pertsona bezala sentitu. Bere etxearen parean, adin bereko neska bat bizi zen, Laura izenekoa, eta neska-mutilen leihoak parez pare zeuden. Baina Laura, tamalez, ez zen diruduna, justu-justuan bizitzeko ematen zion pertsona bat zen, herriko ia guztiak bezala.

Udako egun lasai bat zen eta herrian bizilagun berri bat edukiko zuten zurrumurruak zebiltzan. Baina horrek ez zion axola Laurari, berak Noah bakarrik baitzuen buruan. Aspalditik zegoen hartaz maiteminduta, baina ezinezkoa egiten zitzaion hurbiltzea, oso lotsatia baitzen. Gainera, herriko denek zekiten hango inork ezin izango zuela inoiz Noahrekin hitz egin, txiroegiak baitziren horrelako norbaitekin egoteko. Gainera, Noahren gurasoek ez zituzten txiroak onartzen. Baina Laurari ez zitzaion hori axola, bazekien-eta Noahk ez ziola aberastasunari begiratzen. Orduan, harengana hurbiltzea erabaki zuen lotsa guztiak gainetik kentzeko. Baina, momentu hartan, bizilagun berria iritsi zen herrira eta konturatu zen ez zuela aukerarik izango Noahrekin hitz egiteko.

Bizilagun horiek familia aberats batekoak ziren. Haien artean, Lauraren adin bertsuko neska lirain bat zegoen. Bazirudien Noah segituan maitemindu zela

neska hartaz, astebetera ateratzen hasi ziren-eta. Elene zuen izena eta, Noahri kontatu zionez, aitaren lanagatik zeuden herri hartan. Bitartean, Laura oso gaizki ari zen pasatzen berei begira leihotik, Noahrekiko zuen maitasuna handiegia baitzen. Egunero ikusten zituen biak sekulako autoekin eta sekulako jantzi dotoreekin elkarrekin primeran pasatzen eta horrek min ematen zion. Orduan, hori ahazteko, Laura mutil lagunak edukitzen hasi zen, baina ez zen nahikoa izaten Noah ahazteko. Denek Noah gogorarazten zioten eta, beraz, lehen bezala bakarrik egotea erabaki zuen.

Handik bi asteetara Elenek joan egin behar zuela jakin zen herrian, berek ere ez zekiten data bat arte. Horren ondorioz, Noah oso bakarrik sentitu zen egun haietan eta, Laurak egin ohi zuen bezala, bera ere leihotik begiratzen hasi zen egunero. Laurak ez zekien Elene joana zela eta, horregatik, arraroa egiten zitzaion Noah leihotik begira egoten ikustea, eta lotsa ematen ziolako Noah han zegoelarik agertzea, utzi egin zion leihora egunero ateratzeari. Hala ere, egun batean, biek topo egin zuten, nor bere leihoan, eta Noahk Laura ikusi zuen leihotik begira, pentsakor. Orduan, keinuak egiten hasi zitzaion, ea kasu egiten zion ikusteko. Baina ez zen izan nahikoa. Beraz, papertxoak botatzen hasi zen eta orduan, bai, kasu egin zion:

—Kaixo! —esan zuen Noahk.

—Kaixo.

—Barkatu atrebentzia, baina zer duzu hain pentsakor egoteko leihotik begira?

—Ezer garrantzitsurik ez... baina eskerrik asko galdetzeagatik.

—Tira, badakit ez zinela horrela egongo ez bazenu zerbait handia.

—Benetan diotsut, ez zait ezer garrantzitsurik gertatzen.

—Ei, zer iruditzen behera joaten bagara eta kontatzen badidazu?

—Ongi da, baina azkar bueltatzekotan...

—Bikain! Nik ere zerbait esateko daukat-eta zuri.

Orduan, Laura, pozez beteta, behera joan zen bere ametsetako mutilarekin hitz egitera. Biak behean kontu kontari egon ziren esan beharreko gauzak aipatu gabe; baina, bat-batean, Noahk galdetu zion:

—Eta zer da, ba, buruan darabilkizuna?

—Zera... zutaz maiteminduta nagoela eta oso gaizki pasatzen ari nintzela beste neska harekin ikusten zintudanean...

—Ez da egia izango? Nik esan behar nizuna zen nik ere maite zaitudala. Eta Elenerekin nengoen bakoitzean zurekin nengoela pentsatzen nuen eta horrela pasatzen nuen ondo.

—O! Benetan? —esan zuen Laurak harrituta.

—Bai. Baina ez nizun ezer ere esan nahi Elenerekin ateratzen nengoelako eta gurasoei ez huts egiteko.

—Orduan nola nahi duzu gu biok geratzea?

—Ba, ezkutuan izan beharko du... Bestela, herriak jakiten badu, nire gurasoak ere konturatuko dira.

—Ongi da.

—Ordua joan zaigu! Beraz, bihar arte, laztana.

—Egia da! Bihar arte.

Eta musu bat eman zioten elkarri, agurtzeko. Handik aurrera ezkutuan geratzen ziren eta, ez bazen hala, leihotik aritzen ziren hizketan. Behin ia-ia harrapatu egin zituzten leihoan zeudelarik; baina, zorionez, ez zen hala izan. Dena ederto zihoan Elene itzuli zen arte, handik hiru hilabetera. Orduan, biek erabaki zuten Noah lehen bezala hasiko zela Elenerekin, eta handik astebetera moztu egingo zuela betirako, gero Laurarekin egoteko. Azkar iritsi zitzaion Noahri Elenerekin mozteko eguna; baina, berak ezer esan baino lehen, Elenek hartu zion aurrea:

—Noah, ezagutu ginen egunean esan nizun aitaren lanagatik geundela hemen; baina orain beste lan bat suertatu zaio eta, ondorioz, betiko joan beharra daukagu hemendik.

—O! Ba, nik esan behar nizuna zen zurekin moztu nahi nuela.

—Ulertzen dizut. Hiru hilabete kanpoan egon ondoren, normala iruditzen zait nirekin moztu nahi izatea.

—Beraz, agur esateko ordua iritsi dela iruditzen zait —esan zion Noahk, kanpotik tristura adieraziz, baina barrutik pozez gainezka zegoela.

—Bai, arrazoi duzu.

Eta horrela amaitu zen beren harremana. Noahk pentsatu baino askoz ere hobeto joan zen eta, handik aurrera, Laurarekin kalean ere ibili ahalko zuen, denon bistan. Baina, hori baino lehen, arazo bati egin beharko zion aurre: bere gurasoen pentsaerari, gurasoek ez baitzioten uzten txiroekin egoten.

Noahrentzat dena ametsetan bezala zihoan. Bere gurasoek ez zioten ezertxo ere esan txiro batekin ateratzen hasteagatik. Itxuraz, kalean txiro guztien lagunak egin baitziren, eta denak oso adeitsuak zirela ikustean, lagun bezala onartu zituzten. Orduan, handik aurrera Noah eta Laura pozik bizi izan ziren batera.

Irene Ansorregi



Maialen Aramendi

Ikusmen oneko aitona itsua

Zer gertatuko zen gutxien uste duzun pertsonak beste askok egin ezin ditzakeen gauzak egin ahal izango balitu, nahiz eta ezintasun bat eduki? Eta, hori gutxi balitz, zure etxe berean biziko balitz gizon hori?

Halaxe da, ba, istorio hau. Rodrigo, 80 urteko gizon itsu bat zen. Baina ez itsua bakarrik, berak ezkutuko trebetasun bat zeukan. Lapurra zen! Bere ezintasuna kontuan eduki gabe. Gaur egun, edonon ikus dezakegun beste edozein gizon edadetu bezalakoa zen. Bere semeak, emaztearekin autoan zihoala, istripua izan zuen eta, ondorioz, bere hiru biloben kargu geratu zen Rodrigo. Baina, denok dakigun bezala, ezinezkoa da betirako bizitzea. Hori dela-eta, egun batean, bere sekretua bilobei esatea bururatu zitzaion. Eta hau da Rodrigoren egiazko istorioa.

—Tira, nahikoa da! —esan zuen Rodrigok oihuka, bere bilobek kasu egiteko.

—Bai, aitona! —esan zuen guztietatik gazteenak.

—Zeren zain zaude? Ez al diguzu zerbait garrantzitsua kontatu behar?

—Halaxe da! Baina, horretarako, zuen arreta guztia nahi dut. Ea, ba, behingoz isiltzen zareten. Hasi egingo naiz —esan zuen gizonak urduri—. Zuek ongi dakizuen bezala, ni itsua naiz. Baina badago oraindik ez dakizuen gauza bat.

—Aitona, ez ezazu gezurrik esan. Guk dena dakigu; tira, nik behintzat bai. Badakit, adibidez, lehengoan geratzen zen azken tarta zatia zuk jan zenuela —bota zion bilobetako batek, haserre aurpegiarekin.

—Nik badakit zuk 200 euro gordetzen dituzula burukoaren barnean —besteak, barre txikia eginez.

—Eta zuk nola dakizu bertan zenbat diru dagoen? Gainera, azken aldian dirua desagertu zait —erretxindu zitzaion—. Baina, tira, orain ez daukagu horretarako astirik. Gaur nire sekretua kontatu behar dizuet. Edo, hobeto esanda, nire sekretuak. Hasteko, esan nahi dizuedana da: lehengo eguneko bankuko lapurren burua ni naizela.

—Bai, zera! Zu itsua zara eta —esan zuten denek aldi berean.

—Hori da bigarren sekretua: itsua izan arren, ikus dezakedala beste zentzumeni esker.

—Aitona, horrek ez dauka grazia izpirik ere —esan zuen biloba guztietan zuhurrenak.

—Ez badidazu sinesten, erakutsiko dizut: jakin dezaket zure atzean dagoen liburua erortzeko zorian dagoela —hori esatearekin batera, liburua erori egin zen.



Estibaliz Goñi

—Ezinezkoa! Nola egin duzu? —esan zuten harrituta.

—Ez ditut begiak behar ikusteko. Nahikoa da entzun, sentitu eta itxarotearekin. Ohartu ez bazarete ere, liburua erori baino lehen bere azpiko apalak eta inguruko liburuek soinu txikia atera dute. Horrek esan nahi zuen erortzeko zorian zeudela, apalari eusten zion iltzea hautsi delako.

—Baina aitona, iltzea hautsiko balitz, ez al ziren liburu guztiak eroriko?

—Bai, baina albo bateko iltzea bakarrik hautsi denez, albo horretako liburua eroriko zela jakitea ez zen zaila.

—Eta nola dakizu izkinakoa bakarrik hautsi dela?

—Lehen esan dizut: itxaron, sentitu eta entzun. Hasteko, entzumena oso garrantzia daukat eta, horregatik, iltzearen soinua entzun dut paretarekin eta lurrarekin jo duenean eta, horrela, berehala jakin dut soinua nondik zetorren. Bestalde, orri-aldeen soinua entzun dut... Baina orain esan behar dizuedana garrantzitsua da; beraz, argi. Lehengo egunean, nire adiskideekin dirua lapurtu ondoren, ezkutatu egin nuen. Eta gainontzekoak nire atzetik dabilta dirua berreskuratu nahian, beren zatia eman ez diedalako.

—Baina, aitona, hori arriskutsua da. Eta zerbait gertatzen baldin bazaizu?


—Lasai. Berek ez dakite oraindik nor naizen; baina, hori asmatuta ere, ezingo dute inolaz jakin non dagoen dirua ezkutatuta. Eta hori da kontatu nahi nizuena. Dirua ezkutatuta non dagoen esango dizuet. Edo, hobeto esanda, pista bat emango dizuet. Zuetako batek aurkitzen badu, harentzat izango da dirua. Baina, denon artean aurkituz gero, bakoitzarentzat herena baino ez da izango. Bakoitzari pista ezberdin bat emango dizuet. Zuen eskuetan dago dirua banatu ala ez.

Hori esan ostean, Rodrigo aulkitik altxa eta gelatik irten zen beste gizon heldu batengana joateko. Umeek eztabaidatzen zuten bitartean, gizonak galdera bat egin zion:

—Uste duzu honekin eta iltzearen trukuarekin elkarlana zer den ikasi dutela?

—Ez dakit —erantzun zion Rodrigok irribarre handi bat zeukala aurpegian—; baina seguru nago elkarri laguntzen ikasiko dutela noizbait. Azken batean, elkarren laguntza beharko dute, altxorra inoiz existitu ez dela antzemateko, eta anai-arrebak baino ezer garrantzitsuagorik existitzen ez dela jakiteko.

Olatz Genova



Eneko Genoba

Beldurrez bizi

Une hartan zure bizitza zulo beltz ilun batean sartu zen. Ezin zenuen sinetsi nola egon litekeen horrelakorik egiteko gai den gizakirik; bere bizitzari nolabaiteko etekina ateratzeko beste batena izorratu behar duen pertsonarik. *Zergatik ote da hanzaila guztion artean bakea mantentzea?* pentsatzen zenuen egunak joan eta egunak etorri. Ez zenuen ulertzen zergatik hartu zuen erabaki hura, eta zergatik aukeratu zintuen zu.

Bizi zinen hiriak beldurra ematen zizun, arriskuz josia baitzegoen. Boston hirian erosi zenuen apartamentua, txikitatik nahi izan zenuen bezala; baina oraingo honetan bakarrik zeunden. 700.000 biztanle inguruko hiri erraldoia, eta zu bakarrik. Ausarta zinen izatez, baina beldur askoren atzean ezkutatzen zinen. Horregatik elkartu zinen orain zure bikotea den Johnekin, segurtasuna ematen zizulako. Baina bakarrik zeunden Boston erdialde horretan, irakaslea baitzinen, eta lanak ez zizun beste aukerarik ematen.

Astero etortzen zen John Bostonera. Hura suhiltzailea zen; baina bere jaioterrian, Harvarden, sute ugari pizten ez zenez, asteburuak libre izaten zituen zu bisitatzerako joateko, eta bi egun oso horiek igarotzen zenituzten batera. Denetik egiteko aprobetxatzen zenuten: piknik erromantikoak, abenturazko gauak... Biziki disfrutatzen zenuen berarekin, asteko asperdura desagerrarazten zuen, eta bizitzari zoriontasun puntua jartzen zion. Johnek beti esaten zizun berarekin bizitzera joateko, herri txiki batean lasaiago biziko zinela pentsatzen zuelako; baina zuk, burugogor, ezetz esaten zenion, irakasle postu hura baino hoberik ez zenuela lortuko eta Bostonen geratu behar zenuela.

Bi lagun zenituen hirian, Margaret eta Sarah, biak ere irakasle aritzen zirenak. Urtero egiten zenuten bidaia bat elkarrekin, gehienetan udan, Miami Beach aldera. Baina Margaret mutil-lagunak utzi zuela-eta, aurreratzea erabaki zenuten: udan joan beharrean, udaberrian joan zineten. Garesti xamarra iruditu zitzaizun hasieran, beste urteetan baino gehiago ordaindu behar izan zenuten, baina Margaret behar zintuen, garai txarra pasatzen ari zen, eta bidaia horretan parte hartzea erabaki zenuen, ondoren etorri litezkeen arazo ekonomikoei bizkarra emanda. Besteengatik edozer egiteko prest zeunden, nahiz eta jakin bueltan ez zenuela horrenbeste jasoko.

Iritsi zen eguna. Miami Beach-era iritsi eta ohiko hotelean hartu zenuten ostatu. Zuzenean hotelaren alboko taberna batera sartu zineten, hurrengo gaueko festa antolatzerako. Margareti sorpresa txiki bat egitea bururatu zitzaizuen Sarahri eta bioi, laguna animatu nahian edo, baina ez zenekiten zer.

Momentu horretan erabaki nuen nik zuengana hurbiltzea, Margaret siesta txiki



Raiane Lopes

bat egitera joan zenean. Yate bat alokatzeko gomendatu nizuen, ez baitzen oso garestia hondartzan egiten ziren festa pribatuekin alderatuz. Guztiz ados agertu zineten, eta zirrarako begirada zuzendu zenioten elkarri. Gainera, ni ere etortzeko esan zenidaten, ingurua ezagutzen nuela eta, hartara, ez ginela galduko.

Seiak aldera irten ginen portutik, oraindik eguzki-printzak argitzen gintuelarik. Bideo kamera eraman nuen, oroigarri bat izateagatik. Yatera igo bezain laster kendu zenuten arropa. Kolore biziko bainujantzi deigarri horiek zuen gorputzak are desiragarriago egiten zituzten, eta eguzkiaren azken argi gorri horiek grabazioa espero baino hobe irtengo zitzaidala esaten zidaten, zuen urre-koloreko azala gailentzen baitzen.

Ez zenuten alkoholik eraman nahi izan, lirain mantendu nahi zenutelako eta, gainera, ez zitzaizuen edatea gustatzen, dauzkan ondorioengatik. Baina niri bai. Alkohola ez, baina eskopolamina apur bat nuen poltsikoan, eta, zuek konturatu gabe, zumo edalontzietara bota nizuen. Hortik aurrera guztia aurreikusita bezala gertatu zen. Behin droga hartuta, nik nahi nuen guztia egin zenuten, txintik ere atera gabe, momentu hartan ez baitzineten zuen buruen jabe.

Gainera, laranja zukua hartzen ari zineten, C bitamina duena, eta horrek drogaren arrastoak ezabatzen laguntzen du; beraz, inork ez du jakingo yate horretan benetan gertaturikoa.

Itzuli naiz Bostonera, baina ezer ez da berdina. Jendeak begirada arraroarekin behatzen nau, ezagutuko banindute bezala, baina ez dut ulertzen zergatik, Boston hain handia izanik. Pentsatzen jarri eta orduan ohartu naiz hutsuneak ditudala oroimenean, yatean igo gineneko ilunabarrekoak, baina ez diot gehiegizko garrantzirik eman eta egunero bezala joan nahiz lanera, eta arratsaldean, korrika egitera. Hala ere, guztien ahotan nagoela iruditzen zait.

John bisitan etorri da. Ez da asteburua, baina bi eguneko jaieguna omen da Harvarden eta hona etortzea erabaki du. Alde ikaragarria izan da lanetik itzultzean afaria mahai gainean jateko prest izatea, eta etxeko lan guztiak eginda aurkitzea. Eta, hori nahikoa ez balitz, Johnnek erabateko masajetxo bat eman dit lanetik nekatuta itzultzen naizela-eta. Aspaldiko partez, ostiral gau bat elkarrekin pasa dugu, eta asteburuan ere hemen izango dela esan dit, herrian ez baitu ezer egiteko eta ordezkoko suhiltzaileak omen daude jardunean, praktikak egiten benetako larrialdiren bat gertatzen denerako. Herrera itzuli baino lehen berriro eskatu dit seriozki berarekin Harvardera bizitzera joateko, ezin duela astebururo Bostonera etorri, diru gehiegi xahutzen duela, eta han ere badaudela aukerak irakasle izateko, nik nahi dudana moduan. Baina ezetz esan diot, oraindik ez behintzat, aurrezki gehiago ditudanean, agian posible izango dela.

Egun batzuk igaro dira asteburu horretatik, eta ez dut ez Johnen eta ezta lagunen berririk ere. Ez zait gustatzen jendeak begirada nigan pausatzea, eta gero eta gehiago egiten dutela dirudi. Lanera joan naiz apur bat kezkatuta, eta kezka hori areagotu egin da zuzendariak nirekin hitz egin nahi zuela komunikatu didatenean. Beldur puntu batekin agertu naiz bulegoan, ez bainuen ideiarik ere zeri buruz hitz egin nahi zidan, baina ahoa ireki duen bezain laster, kale gorrian ikusi dut nire burua.

Lehen aipatu dut yatean gertaturikoaren inguruan oroimen hutsuneak ditudala; baina, konturatu naizenean, ezin izan dut sinetsi. Yatean gurekin etorri zen gizon hura nire irudiez baliatu da bideo erotikoa bat interneten zintzilikatzeko, baina nik ez ditut irudi horiek nire borondatez filmatu. Horixe esan diot zuzendariari, baina bideoan ni nintzela ikusten zen, eta kaleratu egin nau, haurrentzat eredu okerra naizelakoan. Johni dei bat egitea bururatu zait, baina haren lagunak hartu dit, eta guztiaren berri baduela esan dit. Johnen herrirantz abiatu naiz, ezin baitut gertatutakoak gure harremanean kaltea eragitea onartu; baina, aldi berean, Johnen jarrera ulertzekoa da.

Iritsi naizenean, azaldu diot dena, eta ez da oso konbentziturik geratu. Bideoa ikusi duela eta oso erreala dela iritzi dio, baina nigan fidatu nahi izan du eta argitzen lagunduko didala esan dit, baldintza batekin: diodana egia dela frogatu arte harremana utzi behar dugula. Azken esaldiak min handia eman dit, baina nik ere gauza bera egingo nukeelakoan nago. Abokatuarengana jo dugu, baina mila arrazoi eman dizkigu epaiketarekin aurrera ez jarraitzeko, horrelako auziak asko daudela eta milioika emakume direla horrekin bizi behar izan dutenak. Haserre bizian jarri nau horrek, eta bideoetan espezialista den batengana joan gara. Interneten zintzilikatua dagoen grabazioa analizatzen zuen bitartean, azaldu digu nola frogatu faltua dela, baina autoritateek ez omen dute baliozko frogatzat hartuko, eta sinetsi egin beharko dugula.

Berdin zaizkit autoritateen ideiak, Johnek sinetsi egin du hark esandakoa, eta barkamena eskatu dit nire esana zalantzan jartzeagatik. Alde horretatik gustura geratu naiz, baina lekutik korrika atera naiz errudunaren bila, banekien-eta non ezkutatzen zen. Autoa hartu eta 17 kilometrotara dagoen etxe abandonatura joan naiz, txikitan hantxe jo baininduen gizon batek ikusi nuenagatik; haur batentzat gogorra da, baina gizon batek neska gazte bat nola bortxatzen zuen ikusi nuen, haren lagunak grabatzen zuen bitartean. Begirada altxatu orduko ikusi ninduen eta nire atzetik atera zen korrika; harrapatu eta gogor jo ninduen, konortea galdu arte.

Etxera sartu orduko hasi zait mehatxuka, bortxatuko nauela batetik, eta jipoituko nauela bestetik, Baina tamalgarria iruditzen zait jokaera, eta gizajo bat dela esan diot. Gerturatu eta oihi egin dit, baina ez naiz isilik geratu, eta etxea hondatu diot, bera bezain pertsona nazkagarri, ergel eta putakumerik ez dagoela esaten nion bitartean.

Bizipen horretatik ikasi dut ezin dela beldurrez bizi eta, hala sentituz gero, aurre egin behar zaiola, kosta ahala kosta. Gertatutakoarekin bizitzen ere ikasi dut, iragana ezin dela aldatu, eta onartzea bakarrik geratzen zaigula, Hori bai, harrigarria, sinestezina eta krudela iruditzen zait horrelako gauzak egiteko gai den jendea egotea, eta ez dut ulertzen zergatik dauden prest errurik ez duen pertsona bati hori egiteko, txanpon gutxi batzuk eskuratzeagatik, eta ulertu gabe jarraituko dut.

Alazne Arriola

Ezkutaleku iluna

Uztailak 25

Jada laugarren eguna da kontzentrazio-esparruan gaudela. Orain dela bi egun arte Drancy herrialdean egon gara, Frantziako iparraldean; baina Hennequin polizia municipalak Alemaniako kontzentrazio-esparru honetara bidali gintuen. Ni amarekin nago. Janán izena du, berak ematen dit aurrera egiteko indarra, baina azkenaldian ez dago bere onenean. Aita eta anaiarengandik banandu gaituzte; haiek meategietan ari dira lanean. Marcus da nire aitaren izena; oso gizon zentzuduna da, baina egoera honek gainditu egin du eta galdua du bere borrokalari sena. Jack zen azkenaldian etxearen jaun eta jabe; aitaren rola hartu eta guri itxaropena piztuz ibiltzen zen gau eta egun, familia aurrera eramanez. Eta ni? Ni Naomi naiz, Naomi Janer. 15 urteko neskatila arrunta naiz edo, hobeto esanda, nintzen. Judua naiz eta, itxura denez, nire familia eta gainontzeko juduak ez gara ondo ikusiak. Bigarren Mundu Gerra zeharkatzen ari gara eta naziek gu denokin akabatu nahi dute.

Goizeko 4:27ak ziren Hennequin eta bere langileak gure etxeko atea jo zutenean. Tamalez, beste egunetan ez bezala, Jack eta aita etxean geratu ziren. Ekainaren aurreneko egunetan jabetu ginen egoeraz. Frantziako poliziak etxez etxe zebiltzan juduak atxilotu nahian; batez ere, gizonak, meategietan lanean jartzeko esklabo modura. Horregatik sortu zuten aita eta anaiak ezkutalekua, bertan gorde eta harrapatuak ez izateko. Ez zuen askotarako balio izan, orain hemen baikaude. Lau egun bakarrik daramatzagu higuingarri hauen menpe; baina, hemen denbora oso motel doanez, bi mende igaro direla ematen du. Ama eta biok egun osoa igarotzen dugu besteen arropa garbitzen. Nazien hitzetan, emakumeen lana omen da. Ia ez dugu jatekorik, egunean gazta zati txiki bat ogi zati batekin, besterik ez digute ematen. Ziur asko jada zazpi kilo gutxiago izango ditut. Egundak okerrenak *Neguko Belodromoan* igaro genituenak izan ziren, bost egun behin-behineko kartzela



Paula Ondozabal

moduko leku hotz eta zikin hartan. Bost egun janaririk gabe eta ur kantitate urri-arekin egon ginen. Han 7.000 pertsona inguru ginela uste dut. Hori dena gogoan izanda, kontzentrazio-esparru hau bost izarreko hotela dela esan dezaket; oso ironikoa, ezta? Eguneke hogeita lau orduak arropa zatar eta zikin berarekin igaro behar ditugu. Ez dakit nolakoa izango den gizonen jantzia, baina gureak kamisoi bat ematen du. Goizean goiz hotz handia egiten du, goizeko seieta jaikitzen gara eta gaueko hamarrak arte aritzen gara buru-belarri lanean. Egia esanda, ez dakit zer ordu den oraintxe bertan, jada ez bainaiz denboraren jabe. Etxetik bidali gintuztenean, kamiseta bat, galtza bat eta zapata pare bakarra utzi ziguten hartzen, baina nik nire egunerokoa eta linterna bat ere hartu nituen. Esparru hau erraldoia da; atzo lanean ari nintzela isilpean gordeko dudana ezkutaleku hau topatu nuen, amari ere ez diot ezer esango; nirea izango da, nirea bakarrik.

Esnatzeko ordua da!, Esnatzeko ordua da! esan zuten naziek megafonoetatik. Hamabigarren eguna zen Janer familiarentzat Alemaniako kontzentrazio-esparruan. Marcus eta Jack, beste gizonezko guztiekin batera, kilometro batzuetara zegoen meatokira joan ziren azken egunetan bezala. Emakumeak berriz, *etxeko lanetan* aritu ziren geratu gabe, hau garbitu, hura jaso, geletan erratza pasa... Naziek bitartean, esku batean puru bat eta bestean baso bat whisky, kartetan igaro zuten egun erdia. Beste egun erdia, berriz, eskuetan pistola bat zutelarik, juduei aginduak emanez eta haiek kontrolatuz aritu ziren. Horrelakoa zen nazien bizitza, lasaia eta ardura gabea.

Uztailak 28

Gaurko eguna besteak bezalakoa izan da. Goiza nazien oihuekin batera hasi dugu. Zortzigarren eguna da aita eta anaia ikusten ez ditudala. Zertan ari ote dira? Badakit meategietan egiten dutela lan, baina ez zer kondiziotan eta zer erara. Ez naute askorik arduratzen, badakit gogorrak direla; lortuko dute aurrera egitea kosta ahala kosta. Gehien arduratzen nauena ama da. Azken egunotan ez du hitzik ere egiten, eta oso itxura kaskarra dauka. Ia ezin du ibili ere egin. Nire ondoan dago, baina ez dago; bakarrik nagoela iruditzen zait. Ni neu ere indarrik gabe geratzen ari naiz, egun osoa lanean, janik ez eta aurrera egiteko inoren bultzadarik ere ez. Gauza bitxiak gertatzen ari dira azkenaldian, jendea desagertzen hasia da. Egia esanda, ez da bitxia, ez naiz axolagabea eta badakit gas-ganberen bidez naziak gutarrak hiltzen ari direla; agian, laster nire txanda izango da. Ez dut nahi horretaz pentsatu; baina, azken finean, hil ala bizi... egoera honetan egonda, zer aldatuko da? Beharbada, zeruan hobeto nago. Gutxienez, ez dut sufrituko. Baina 15 urte ditut eta ez dut nahi nire azken arnasa ganbera horietako batean eman. Gaur nire begien aurrean heriotza ikusi dut. Natasha izeneko emakume bat zen, 47 urtekoa. Esparrura iritsi baino lehen, bere gizona eta alaba hil zituzten naziek eta, ondorioz,

trauma bat dauka gaixoak, ero bihurtu da... zen. Burua joan zaio eta ihes egiten saiatu da, nazi bati erasotuz. Bi mutil gazte ziren gure arduradun. Natasha hartu dute eta, hasteko, biluzik jarri dute. Gizagaixoa gehiago makurrarazteko, gainera, gu denon aurrean egin dute guztia. Lurraren aurka gogor bultza egin eta emakumea jotzen hasi dira, astakirten horiek! Batek ostikadak ematen zizkion bitartean, besteak oihu eginez iraindu egiten zuen animalia bat izango balitz bezala. Lur jota utzi ondoren, eskuetan hartu eta horma baten aurka bota dute. Bietako batek pistola hartu eta emakumearen buruaren aldera bideratu du. Ez nuen hura ikusi nahi eta, beraz, buelta eman dut. Orduantxe entzun dut pistolaren hotsa. Hil egin dute koitadua. Goian bego, Natasha. Hau onartezina da! Ezin ditut nire malkoak gehiago gorde, askatu egin behar ditut, oihu egin nahi dut, aske izan nahi dut.

Abuztuak 2

Beldur naiz. Ez dut ama aurkitzen. Arratsalde osoa daramagu emakume guztiok lan eta lan, eta bera ez da inon ageri. Lehen, amaren ohean ibili naiz zelatan arrastoren bat aurkitu nahian, baina ezer ez... Halako batean, nire burkoaren azpian paper bat aurkitu dut, baina ez naiz izan kapaz papera ireki eta irakurtzeko. Orain, nire ezkutalekuan egonda, seguruago sentitzen naiz, lasaiago; baina, hala ere, urduri nago, non da nire ama? Badakit ez dutela gas-ganbera batean sartu, gainontzeko guztiek esparruan jarraitzen baitute. Papera zabaldu dut. Gutun bat dela ematen du. Ezkerreko eskuan daukat eskutitza, eta dar-dar egiten dit. Beste eskuan, berriz, linterna daukat. Honela dio:

Alaba maitea,

Begiak itxi eta sakon arnastu segundo batez, edota hiruz... behar adina arnastu. Badakit azken egunotan ez naizela egon nire onenean eta, era batera esanda, badakit bakarrik utzi zaitudala, baina ez da nahita izan. Indarrrik gabe geratu naiz eta ezin izan diot egoera honi gehiago eutsi. Gaixo nago Naomi, oso gaixo. Duela urtebete eta zenbait hilabete minbizia diagnostikatu zidaten pankrean eta sendaezina da. Atzo naziek esan zidaten beste kontzentrazio-esparru batera eramango nindutela nire azken egunak pasatzera; ematen duenez, hara eramaten dituzte gaixo guztiak. Ez naiz kapaz izan zu aurrez aurre agurtzeko; asko sentitzen dut horregatik, maitea. Agur gutun hau zuretzat soilik idatzi dut; beraz, gorde isilean. 15 urte soilik dituzu oraindik; gutxienez 50 urte dituzu zeure aurretik eta ni ez naiz zurekin egongo; beraz, ohartxo batzuk eman nahi dizkizut. Gaur ez dut argazkiren laguntzarik behar zuri hainbat lezio irakasteko, txikia zinenegun egiten nuen bezala. Jada heldua zara eta orain zure adimena eta irudimena dira nagusi. Badakit nola sentitzen zaren. Batzuetan, iruditzen zaigu ezerk ez duela zentzurik edota dena pikutara botako genukeela kolpe batez dena aldatuz, ezerk eta inork garrantzarik eduki gabe. Baina gaur lagundu egingo dizut. Batzuetan pentsatuko duzu ea zergatik bizi behar duzun bizitza gogor hau edukitzeko, ezta? Nik

emango dizut horren erantzuna. Beti da garrantzitsua aurrera egitea, bihotza, irri batek, milaka eta milaka malko baino gehiago balio baitu. Orain, itxi begiak berriro eta goazen gure iraganera, zu haurra zinen garaira, kezkarik ez zenuen garai haietara... Esadazu, zer ikusten duzu? Dena errazago zen, ezta? Zuk hori duzu gogoan, baina errealitatea bestelakoa da. Arazoak beti egon dira, baina zu ez zinen jabetzen; gu, aita eta biok, borrokatu dugu arazo horien aurka, zure zoriontasuna eskuratu nahian. Goazen berriro aurrera, orainaldira. Badakit beldur zarela aurrera egiteko, egunerokoari aurre egiteko. Badakit zuk ez duzula horrela ikusten; baina ni beti egongo naiz zure ondoan, ez fisikoki, baina bai zure bihotzean, zu babestuz... zu eta ni, ni eta zu. Begiratu zure ingurura, zure egunerokora, zure bizitzari eta pentsatu segundo batez zer aldatuko zenukeen. Zer ikusten duzu? Hobeto sentitzen zara? Gauza bat aitortuko dizut, txiki, nahiz eta zure ingurukoa zeure gogo guztiekin gorrotatu, ez da ezer aldatuko; beraz, onartu eta segi aurrera. Jakin ezazu zu bakarrik zarela nire bizitzako gauzarik garrantzitsuena; zu soilik, maitea. Denok ditugu egun txarrak. Ez diozu inoiz galdetu zure buruari horren zergatia? Erraza da. Egun politak, onak, gehiegi baloratzen ditugu eta, ondorioz, faltan izaten ditugu. Denok bizi nahi dugu zoriontsu eta egunero irri egin, baina, negarrak egiten gaitu gizaki. Nahi baduzu, egin negar, haserretu, edota, nahi baduzu, egun guztian zehar goibel egon; baina, horrela, egun eder bat galtzea bakarrik lortuko duzu eta zeure burua kaltetu, besterik ez. Orain, begiak ireki eta mundu guztiko segundo guztiak aprobeztatu. Gaur utziko dizut burumakur egoten; baina bihar irri egiten baduzu soilik. Hortaz, altxa, gogor arnastu, ezkutalekutik irten eta borrokatu zure eskubideengatik, zure askatasunagatik eta zure bizitzagatik. Ez ahaztu inoiz ikaragarri maite zaitudala, laz-tana. Faltan botako zaitut.

Janán

Naroa Miralles



ORIOKUDALA

Euskaraz
bizi-bizi